

Barrena



**Euskal
antzerkiaren
plaza**

**Goaz Antzerki Taldearen ekimenez,
Antzerki Astea ospatuko dute Deban gaur hasi eta maiatzaren 31ra bitartean / 25**

Antzerki amateurra eta profesionala uztartuko ditu jaialdiak. ALEX TURRILLAS

KIROLA

Zegama-Aizkorri mendi maratoian esatari izatea "amets egitea" izan da Laura Rodriguezentzat

Zegamako mendi maratoi entzutetsuaren 25 urteko historian lehen emakumezko esataria izan da elgoibartarra / 7



Laura Rodriguez. OSCAR BLANCO

ROCK MUSIKA

Etena egitea erabaki dute Gararock jaialdikoek, ardurek eta lanak ilusioa betiko itzali aurretik / 3



Josu Iriondo eta Ina Iriondo. A. ARGOTIA

ARTEA

Kaleko Margo Lehiaketaren harira, artistaz beteko da igandean Soraluze

Umeentzako eta 16 urtez gorakoentzako lehiaketa bi izango dira, goizez, eta arratsaldean banatuko dituzte sariak, 18:00etan / 23

KIROLA

400 mendi lasterkari batuko dira, bihar, Mallabiko 7 Pago lasterketan

Bigarren aldia izango da aurtengoa, eta Durangaldeko Kopako bigarren lasterketa / 19



Korrikalariak, Oizen. IGOR ASURMENDI

JAZZ MUSIKA

Roberto Nieva itzal handiko saxofoi jolearen kontzertua, gaur, Mendaron

Taldearekin emango du kontzertua, San Agustin aretoan, 21:30ean hasita / 15

HEZKUNTZA ETA DIGITALIZAZIOA

Eskualdeko ikasleek irabazi dituzte 'Kaixo mundua' lehiaketako hiru sari / 2



Sarituak eta antolatzaileak, gaur zortzi, Bilbon egin zuten sari-banaketan. PUNTOEUS

Debabarreneko hiru talde, 'Kaixo mundua' lehiaketako irabazleen artean

Ikasleen alfabetatze digitala sustatzea du helburu lehiaketak, eta Euskal Herriko 68 ikastetxek parte hartu dute: 1.413 ikaslek eta 527 taldek. Tokiko denden eta herri-ekimenen webguneak sortu dituzte

Ainara Argoitia DEBABARRENA

Debabarreneko ikasleen hiru lan saritu dituzte Puntueus-ek antolatutako *Kaixo mundua* webguneen-lehiaketan: bi DBH3-4 kategorian eta bat Lanbide Heziketan. Elgoibar BHI ikastetxeko ikasle Oier Arriolak, Peru Astigarragak, Ilargi Galeanok eta Wiame Berrabhik Soraluze-ko musika eskolarentzat sortutako webguneak irabazi du DBH3-4 kategorian *-soraluzemusika.eus-*, eta kategoria berean, epaimahaiaren sari berezia eskuratu du Oihan Pagola, Uxer Andonegi eta Beñat Beristain Mutriko BHI institutuko ikasleen *etxeoarazoakkonpondu.eus* webguneak. Lanbide Heziketan, berriz, Elgoibarko Meka Lanbide Eskolako lau ikaslek Txillarrekodendarentzat egindako webgunea nabarmendu dute. Zineb Zroukik, Ivan Migalesek, Xabier Arregik eta Jennifer Vaquerok sortu dute webgunea, eta batzuek zein besteek ostiralean jaso zuten antolatzaileen aitortza, Bilbon, EITBren egoitzan egin zuten sari-banaketa ekitaldian.

Aipagarria da, era berean, Elgoibarko BH Institutuko beste talde batek sortutako webgune bat finalista izan zela, DBH3-4 kategorian; Amaia Figuerok, Elene Gurrutzagak, Gaizka Friasek eta Dylan Lanzak Aterpe tabernarentzako sortutako webgunea, hain justu ere. Aitortza jaso duten bi webguneak eta finalista izan den beste hori *Elgoibartik Mundura* ekimena-

ren barruan garatu dituzte ikasleek. Elgoibarko Udalak, Elgoibarko Izarrak, Puntueus-ek eta herriko ikastetxeen arteko lan-kidetzaproiektua da *Elgoibartik Mundura*, digitalizazioa eta euskararen erabilera bultzatzeko asmoz sortutakoa.

Eduki digitalen kontsumitzaile pasibo izatetik, sortzaile izatera Euskal Herriko ikasleen alfabetatze digitala sustatzeko antolatu du ohi du Puntueusek *Kaixo mundua* lehiaketa. Horretarako, gaitasun teknikoak –webguneen arkitektura, diseinua eta programazioa– eta komunikazio-gaitasunak uztartzen ditu lehiaketak; betiere, euskararen erabilera ingurune digitalean bermatuz. Badu bereizgarri bat ere egitasmoak: proiektu errealek sustatzen ditu. Izan ere, ingurune hurbileko behar bati erantzun behar izaten diote ikasleek. Hala, tokiko denda txikiei, elkarteei eta herri-ekimenei sortu dizkiete webguneak, denda edo elkarte horien jabeekin elkarlanean, profesionalak egingo luketen moduan.

Elgoibar BHI institutuko beste talde baten lana finalista izan da, DBH3-4 kategorian



DBH3-4 kategorian, epaimahaiaren sari berezia jaso zuten Mekako ikasleak eta irakaslea. PUNTUEUS



Soraluzeko musika eskolarentzako webgunea sortu duten Elgoibar BH Institutuko ikasleak eta irakaslea, orogarriarekin.



DBH3-4 kategorian epaimahaiaren sari berezia eskuratu duen Mutriku BH Institutuko taldea.

Bi sari berezi

Aurten sari berezi bat ere banatu du epaimahaiak, proiektu erreale onenari dagokiona. Baztango *altxukodenda.eus* proiektuak eskuratu zuen ostiralean sari hori, "tokiko denda txiki baten beharretara guztiz moldatutako emaitza profesionalagatik". Saritutako

webgunea Baztango Lekaroz BH Institutuko Leire Uribe-Etxebarriak, Saioa Perotxenak eta Izaro Lakostak sortu dute. Lehiaketara aurkeztutako lanen kalitate ona azpimarratu zuen epaimahaiak sari-banaketa ekitaldian, eta lan guztien artetik bereziki bat nabarmendu zuen: Politeknika Txo-

rierriko Alaitz Arambururen, Ibon Lekueren eta Julen Gorostizagaren *saveme.eus* plataforma digitala. Ziberbullyingari aurre egiteko sortu dute plataforma, eta lan horren "izaera profesionala, diseinu zaindua, originaltasuna eta maila tekniko landua" goraiatu zituen epaimahaiak.



Josu Iriondo eta Ina Iriondo, Gararockeko antolatzaileak. AINARA ARGOITIA

"Urte hauetan guztietan ondoan izan ditugun boluntarioei zor diegu Gararockek eman diguna"

JOSU IRIONDO ETA INA IRIONDO GARAROCK JAIALDIAREN ANTOLATZAILEAK

Hamargarren edizioa izango zuen aurten Gararock jaialdiak, baina eten bat egitea erabaki dute antolatzaileek. "Ez da behin betiko agurra", zehaztu dute

Ainara Argoitia MENDARO

2016an antolatu zuten estreina-koa, hein handi baten Carlos Cebrian *Cebri* lagunak hauspututa eta Munleten *Chupacabras* diskoa aurkezteko, baina bete zituen kontzertu hark hainbeste, ezen jarraitzea erabaki zuten. Geroztik hazi eta hazi joan da Gararock, jaialdi handien mapan lekua ziurtatua izateraino, baina geldialdi bat egitea erabaki dute orain antolatzaileek, ardurek eta lanak ilusioa betiko itzali aurretik.

Aurten ez da Gararock izango. Nekea aipatu duzue arrazoi nagusiztat.

Ina Iriondo: Bai, kantsatuta gaude, eta geneukan taldea ere desegin du horrek. *Reset* bat egin beharra geneukan, geldialdi bat, jatorrizkora itzultzeko.

Josu Iriondo: Hamargarren edizioa izango zen aurtengoa, eta orain artekoa ondu eta zerbait espezialagoa sortzea zen gure asmoa. Esan ere hala esan

genuen iaz, eta hasi egin ginen taldeei deika, baina hiruzpalau ezetz jaso eta hustu egin ginen. Urtetik urtera zerbait hobea eskaintzeko presio hori jarri diogu geure buruari, eta gehiegia egin zaigu.

I.I.: Anbizio handiegiz jokatu dugu, beti gehiago eta hobea eskaini nahi batekin, eta ez dugu asmatu atzera egiten. Josu eta biok ibili gara, bereziki, aurrelanetan, eta ni neu agobiatuta sentitu naiz. Gustuz eta ilusioz hasitako gauza bat bihurtu da ardura handi bat, eta tarte horretan gure etxeko ardurak ere handitu egin dira. Dena izan da. Nik duela bi urtekoaren ondoren esan nien hauei: "Gelditu beharra daukagu". Baina hauek ezetz, eta egin genuen aurrera, guk geuk ere oso ondo pasatzen genuelako, baina lana ez da egun bakarrera mugatzen, ezpada urte osora. Diru-eske ibiltzea; kostuak handitu direlako Udalarekin negoziatzen ibili beharra;

beti tiraka ibili behar hori; tar- teka min egiten duten gauzak entzun beharra norbera dena ematen ari denean; taldeak estutzen ibiltzeak sortzen digun eztabaida etikoa... Gauza asko dira. Eta beste kezka handi bat ere izan dut nik neuk: Mendaroko herriak nahi al du benetan Gararock? Nik kezka hori beti izan dut, hasierako urteetan uste ez genituen herrikideak ere erakarri genituen arren, azkeneko urteetan kanpoko jende gehiago ibili delako bertakoa baino. Jendeak ez ditu taldeak ezagutzen, eta, urterokoa bihurtua zenez Gararock, ez zuten sentitzen beren beharra genuenik.

J.I.: Bai, orain, aukera zabalagoa daukagu. Kultura-agendan zegoen hutsunea bete, rock musikari zor zitzaion lekua eman, eta, musikari nahiz herritarrei, kalitatezko programazioa eskaintzeko sortu genuen Gararock, baina orain, Juli [Segundo] ere

badabil hor jazz kontzertuekin, eta, bestela ere, eskaintza aberatsagoa da.

Egindako lanaren erakusgarri dira eskegita daukazuen kartelak. Zer uste duzue lortu duzuela?

J.I.: Bai, memoria egiteko balio dute. Hor ikusten da zer izan den Gararock, zenbat talde onek jo duten, zenbat lan egin den tamaina honetako rock eskaintza bat antolatzeko. Gehiago edo gutxiago gustatuko zitzaizkion jendeari etorri diren taldeak, baina jakin bazekiten ekarri baldin baditugu kalitatearen bermea zutelako ekarri ditugula. Begira, gu hasi ginenean ez zegoen ezer hemen. San Agustin aretoa bera ere apenas erabiltzen zen, eta orain, berriz, astero dago zerbait.

I.I.: Hori da. Debabarrenean ere ez daukagu gaur Gararocken pareko jaialdirik, eta kanpoko jende batek ere eskaini du bere burua lanerako, aurten ez dela izango jakin duenean. Mendaron ere badira gutxi batzuk pena agertu didatenak, baina niri horrek zer pentsatua eman dit, nire asmoa bestea izan delako beti: ekartzea talde onak hona, gure herriko jendeak ezagutu ditzan. Saiatu gara mimoz zaintzen dena, eta, horri eusteko gai ez baldin bagara, ez du merezi. Hori bai, oso harro nago egin dugunaz, eta nahi nuke gauza bat esan: urte hauetan guztietan ondoan izan ditugun boluntarioei zor diegula Gararockek eman digun guztia.

Ez da behin betiko agurra. Jarri dezagun azpimarra horretan. Zer duzue buruan?

J.I.: Musikazaleak izanda, seguru zerbait egingo dugula, baina formatu txikiagoan.

I.I.: Ba, begira, aurten 30 urte beteko dira Trinitaten Trinipop jaialdia egin genuenetik. Lili-Moon eta 6Nemen9 taldeek jo genuen lehenengo hartan, eta bi urtean egin genuen, 1996an eta 1997an. Urteurren hori go-goan, asmoa daukagu Trinitateko parkean kontzerturen bat antolatzeko. Kontua da Mutrikutik deitu digutela ekainaren 20an, Xiri Egunean, Maraca Diablaren azken lana aurkezteko, eta pentsatzen gaudela Mendaron ere aurkezteko, Trinitaten, beste talde batekin edo birekin. Ona izan daiteke, herriak zer nahi duen neurtzeko.

J.I. Forma eman behar diogu horri, baina leku ederra da Trinitateko parkea; hori ere izan

da gure nahia: herrian daukagun lekuetara zabaltzea.

Asko izango ziren, baina une go-goangarrienak zeintzuk izan dituzue?

I.I.: Asko izan dira, baina nik aipatuko nituzke lauzpabost jaialdi: lehenengoa, hirugarrena, laugarrena, eta 2024koa, Txirristakaren urteurrenekoa eta Ruper Ordorika ekarri genueneko. Cebri gaixo zela egin genuen lehenengo Gararock, *Chupacabras* aurkezteko, eta espero ez genituenak ere etorri ziren. Hirugarrena *brutala* izan zen. Anari, Biznaga, Rubia, Jupiter Jon... Han goia jo genuen. Laugarrena Cebriren azkena izan zen.

J.I.: Bai; gogoan daukat La Niña Hiloko abeslaria jaitsi zela ohol-tzatik aulki gurpildunean zegoen Cebri agurtzera. Joseba Irazo-kiren boloa ere itzela izan zen.

I.I. 2024ko jaialdiko irudia ere ez dut ahaztuko. Bertso eskolako umeak, gure kamiseta soinean zutela, rock doinuan bertsoetan. Niretzat Gararocken esentzia argazki horretan dago. Eta gero, Ruperrena... Nik orduan esan nien hauei: "Listo, orain utzi dezaket. Ez daukat beste helbururik". Gauza bat esango dizut: Anari eta Ruper ekarriko ditugu berritro noizbait. Hori diot agindua neure buruari.

J.I.: Cebri oso inportantea izan da guretzat. Pandemia betean hil zen, 2020an, eta haren omenez antolatu genuen Cebriday ere ikaragarria izan zen. Garai zailak izan ziren haiek, baina gu orduantxe geunden ilusio handienarekin eta antolatu genuen *Begietik entzutekoak* zikloa [Mugak, Testurak, Mursegok eta Munletek jo zuten].

I.I.: Aipatu duzu Cebri, eta bai, berebiziko garrantzia izan du hark gudan, baina badituzte hemen aipatu nahi nituzkeen beste lagun batzuk ere, gaur falta direnak. Donan [Angel Bazterretxea abadea], Balbi [Vives], Jone Gurrutxaga, Juan Luis Ondarra eta Patxi Santamaria azkoitiarra. Lagun asko eman dizkigu Gararockek, baina bost horiek pisu berezia izan dute.

"Urtetik urtera zerbait hobea eskaintzeko presio hori gehiegia egin zaigu"

NIRE USTEZ

Ez dakit



LANDER ARANBERRI

Duela pare bat hilabete, sagardotegira bidean gindoazela, pare bat lagunek "Irangoari" buruz galdetu zidaten. "Ez dakit", izan zen erantzuna. "Baina egoera honek iraungo duen, nori komeni zaion... zerbait irakurriko zenuen", berritaundu ninduten. "Hain zuzen ere, horregatik ez daukat ideiarik ere", erantzun behar izan nien.

Tontotu egingo nintzen, edo ingurua gehiegi erotuko zitzaigun, batek daki. Atsotitzak dio lehoi eria osasuntsua baino arriskutsuagoa dela, eta nago AEBak ez ote dabilzan motoa erosi eta tatuatzan hasi den *señor* dibortziatuarena egiten. *MG* autoak eta *Xiaomi* segapotoak erosten dituen munduaren aurrean, puntako teknologiaren erakustaldiak egin nahian dabilen, Guardia Iraultzailearen baseak jo beharrean eskolak jotzen dituen arren. 80ko hamarkadan, *apartheid*-aren Hegoafrikak inoiz baino gogorrago egin zuen eskubide zibilen defentsan zebilen jende-oldearen aurka,

"Atsotitzak dio lehoi eria osasuntsua baino arriskutsuagoa dela"

jakitun zelako denbora agortzen ari zitzaioa, gero eta ezinezkoago zitzaizkion helburu handinahiak –arma nuklearrak eta abar– lortu nahian tematzen zen bitartean. Urte gutxiren buruan, erregimena goitik behera jausi zen.

Agente laranja gerra irabaztetik *"very close"*

dagoela errepikatzen digun arren, desesperazioaren atzaparkadak ageriko daude. Munduko lehen armada operazio gerrillari zikin baten bidez presidente bat bahitzen ikusi dugu, armadaren burua uharte erraldoi bat anexionatzeko haurtxoen tankerako purrustadaka zebilen bitartean. Hori gutxi ez, eta Euskal Herriaren tamainako estatu genozida baten presioz, bere suhiak engainatuta, mundu zabalaren aurrean lotsagorrituta gelditzeko tenorea ere izan du, 90 urteko liderrak erailda zerbait aldatuko zen esperantzaz.

Disparosunidos haurrak atxilotzen eta hauteskundeak manipulatzan barne odolusten ari den bitartean izango ditugu erokeria gehiago oraindik ere; hori ziurtatu dezaket, behintzat. Zeintzuk? Sagardotegiko bidean esandako bera: "Ez dakit". Bitartean, Xenpelarren bertsoak kantatu beharko: *Gerra nai duben guziya, berari kendu biziya!*

GUTUNAK

Ekainaren 13an denok Iruñera!

A.I.

ELGOIBAR

Euskalgintzaren Kontseiluak eta ehundik gora euskaltzalek Euskaltzaleon Martxa antolatu dute ekainaren 13rako, Iruñean. Martxaren hiru zutabeak 17:00etan abiatuko dira, Antoniuttitik, Runako Parketik eta Askatasun Enparantzatik, 18:00 aldera Gazteluko Plazan bat egiteko, eta ofizialtasun osoa, jauzia hizkuntza politiketan eta euskaltzaletasuna aldarrikatuko dituzte, *Euskaraz bizitzeko behar dena* lemapean. Martxak aldarrikapena eta ospakizuna uztartuko ditu, euskaraz bizitzeko beharrezkoak diren baldintzak eskatzeko eta euskaltzale izatearen harrotasunari balioa emateko.

Martxak euskaraz bizitzeko baldintzak eratzeko ezinbestekoak diren hiru oinarri ordezkatuko ditu. Bat, ofizialtasun osoa eskatuko duen zutabea: euskararen normalizazioan aurrera bermez egiteko ezinbestekoa da euskara ofiziala izatea Euskal Herri osoan, gaztelaniaren eta frantsesaren pare, bestelako baldintza murriztailerik gabe. Bi, hizkuntza-politiketan eman beharreko jauzia aldarrikatuko duena: euskarak etorkizunik izango badu eta mundu aldaketa hauetara denetara egokituko bada, premiazkoa da paradigma aldaketa bat gertatzea hizkuntza-

politiketan, eta euskararen ezagutza orokortzeko eta normaltasunez erabili ahal izateko baldintza errealak sortzea. Hiru, euskaltzaletasuna: herritarron ardura eta eginkizuna azpimarratu ez ezik, balioetsi egin nahi da zutabe horren bidez.

Euskarak aurrera egingo badu, herritarron ekarpen eta ekinari esker izango da, beste garai ilun batzuetan bezala, euskaltzaleon ekimen antolatuari esker! Apuntatu agendan, hozkailuko atean, mugikorrean... ekainaren 13a. Izan dadila Iruñea Euskal Herri osoko euskaltzaleen bilgune erraldoia!

Jarlekuak Toletxegainen

D.L.

ELGOIBAR

Toletxegainen hartzen dut trena astero, Donostiara joateko. Obrak egin dituzte, eta oso txukun geratu da geltokia, baina jarlekuak falta dira. Gazteak lurrean eserita egoten dira trenaren zain, baina adin bat daukagunok ezin dugu horrelakorik egin, eta jarlekuak behar ditugu. Telefonoz deitu nuen ETSra, Toletxegainen ez baitago bulegorik. Esan zidaten idatziz bidali behar nuela erreklamazioa, eta halaxe egin nuen. Amaran jaitsi nintzenez, hango bulegoan bete nuen erreklamazio-orria: Toletxegainerako zakarrontzia eta jarlekuak eskatu nituen.

Iritsi zait ETSren erantzuna: zakarrontzia jarriko omen dute –dagoeneko jarrita dago–, baina jarlekuak ezingo omen

dituzte jarri, geralekua estuegia delako, eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzea delako haien lehentasuna.

Ez dakit araudia aldatu den edo zer. Dakidana da geraleku zaharrea bazeudela jarlekuak, eta bistara, behintzat, egungo geltokiak ez duela lehengoa baino estuagoa ematen. Nik ez dakit zer gehiago egin daitekeen, baina argi daukat adinekoentzako behar-beharrezkoak direla jarlekuak, trenaren zain egoteko.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). BARRENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Aita Agirre Kulturunea 3-3, 20870 Elgoibar / barrena@barrena.es

Barrena[®]

DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea

Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.es

Lehendakaria

Gaizka Azkarate.

Zuzendari nagusia

Egoitz Unamuno.

Eduki arduraduna

Ainara Argoitia.

Erredakzio batzardea

Ainara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhoa Andonegi, Izaro
Aulestiarte.

Kazetariak

Ainara Argoitia, Ainhoa
Andonegi, Alex Turrillas, Ander
Gomez, Asier Orbea, Egoitz
Unamuno, Izaro Aulestiarte,
Nerea Bedialauneta, Ubane
Madera.

Diseinu arduraduna

Oier Larreategi.

Zuzentzailea

Sergio Azkarate.

Kidetza eta banaketa

Alex Turrillas.

Maketazioa

Zaloa Arnaiz, Oier Larreategi.

Publizitatea

Leire Rubio.

HARPIDETZA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.es

PUBLIZITATEA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
publi@barrena.es

DEBAKO EGOITZA

Deba 20820
Ifar Kalea 12, behea
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA

Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZKO EGOITZA

Soraluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025

ISSN: 3101-2647

Tirada: 10.500 ale

Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Elgoibarko Udala



Ermuko Udala



Mallabiko Udala



Mendaroko Udala



Mutrikuko Udala



Soraluzeko Udala



NONDIK NORA

"Arinago bertakotzen lagundu dit futbolak"

CARLOS DIDIER MOSQUERA MURILLO
ELGOIBARREN BIZI DEN KOLONBIARRA

CD Elgoibarko atezaina izan da azken hiru urteetan Carlos Didier Mosquera Murillo (Kolonbia, 1991). Futbola izan du pasio eta bizimodu

Asier Orbea

Kolonbiarra zara; zer partetakoa?

Condotokoa naiz, herri txiki eta atsegin batekoa. Chocon dago, Kolonbiako 32 departamenduetako batean, Pazifikoko eskualdean. Urre eta platino gehien duen lurraldea izateagatik ezagunak garen arren, aldi berean ahaztuenak ere bagara. Beltzak gara bizilagun ia denak, denak ez esatearren. Gainerakoak, azal zurikoak, urrea ateratzen lan egitera herrialdeko gainerako departamenduetatik etorritako jendea dira, Bogotako *rola*-ak edo Medellinako *paisa*-k, esaterako. Azken horiek dira, hain justu ere, nazioartean kolonbiar azentua ezagun egin dutenak, denok horrela hitz egiten ez dugun arren.

Noiz eta nolatan erabaki zenuen sorterrria lagatzea?

17 urtera arte geratu nintzen jaiolekuan. Lehenago alde egin nahi nuen arren, amak ikasketak amaitzera behartu ninduen. Aita eta ama nik 2 urte bete aurretik banandu ziren, eta amarekin bizi nintzen, beste bi anaiorderekin batera. Aitak zazpi seme eduki ditu, sei bikoterekin, eta harreman ona dut guztiekin. Umetatik argi nuen zer egin nahi nuen bizitzan, futbola besterik ez nuen buruan. Batxilergoa bukatutakoan hasi nuen horrenbeste desio nuen futbol ibilbidea, eta batetik bestera eraman nau futbolak.

Konta egiguzu, bada, futbolekin egin duzun ibilbidea?

Lehenik, Kolonbiako hiriburura joan nintzen, Bogotara. Zenbait taldetatik igaro ostean, afizionatu mailako Marsella taldean egonkortu nintzen. Denboraldi oso onak egin nituen han, eta herrialde osoan lehiatzen ziren talde handiagoen arreta piztu nuen. Probak gainditu ostean, bi urte igaro nituen Ko-

lonbiako Lehen Mailan lehiatzen zen Fortaleza taldean. Zuzendaritza eta entrenatzaileak aldatu zituztenean, lekurik gabe geratu nintzen, eta Panamara joan nintzen. Denboraldi bat eta erdi eman nuen Bigarren Mailako talde batean, eta Kolonbiara itzuli nintzen; Medellinera baina. Langabezian pasa nuen urtebete, harik eta Belizera joateko eskaera bat jaso nuen arte. Police United taldean aritu nintzen. Handik Nikaraguara joan nintzen eta hainbat taldetan aritu nintzen: Masachapa, Deportivo Las Sabanas, Managua FC eta Ocotol. 2022an Espainiara etortzea erabaki nuen.

Nolatan sortu zitzaizun Europara etortzeko aukera?

Orduan, futbolak ez zuen zerikusirik izan. Nikaraguakoa dut bikotekidea, eta hura etorri zen lehenago hona, Elgoibarrera, eta ni haren atzetik.

Hemen ere azkar topatu zenuen futbolerako bidea, ezta?

Bai, banatzaile-lanetan ari nintzela izan nuen Ondarroa eta Berriatua artean dagoen futbol talde baten berri, eta neu aurkeztu nintzen lekurik ba ote zuten galdezka. Taldeko atezainari esan nion Elgoibarren bizi

nintzela, eta CD Elgoibar atezain bila zebilela esan zidan. Lehiarik egingo zion atezainik ez zuela nahi pentsatu nuen arren, egia zen. Joan nintzen Mintxetara eta hitz egin nuen Haundiko entrenatzailearekin; Pablo zen orduan, eta esan zidan denboraldi erdia zeramatela ordeko atezainik gabe. Halaxe hasi nintzen Haundin jokatzeko. Hiru urte eta erdi egin ditut.

Zer balorazio egiten duzu orain artekoaz?

Oso ona. Europara etorri nintzenean, banuen kezka arrazismoaren kontuarekin, baina Euskal Herriak harrituta lagana, onerako. Beti dago egun txar bat daukan norbait, baina, osterantzean, ez dut inolako arazorik izan; aitzitik, jende oso atsegina eta edukazio handikoa ezagutu dut. Etxez etxeko banatzaile-lanetan aritu naiz Oñati, Bergara zein Ermu inguruan, baserriz baserri ere bai, eta lagun askorekin izan dut tratua. Arinago bertakotzen lagundu dit futbolak. Klubeko jokalarik gazte txoenek eta haien gurasoek ere egiten didate kasu kalean.



Carlos Didier Mosquera 2022az gero bizi da Elgoibarren. ASIER ORBEA

Non ikusten duzu zeure burua hemendik urte batzuetara?

Haundi lagako dut aurten, eta baita futbola ere. Askok garestitu da bizimodua, etxeen alokairuak izugarri egin du gora, eta, bertakoontzat zaila bada, pentsa kanpotik gatozenontzako. Nik ez dut ezer kotizatu orain arte, eta 35 urte egitera noa. Lan eta lan egitea tokatzen zait, eta bateraezina da futbolarekin. Gainera, taldekideekiko ez da bidezkoa entrenatzera joan ezin eta gero jokatzea. Erabakia hartu nuene-

tik lasaiago nago. Soldadura ikasi dut, eta, paperak atera ditudanez, horrekin lotutako lana aurkitzea da orain nire asmoa. Futbolaren hutsunea, berriz, gimnasioarekin beteko dut; betidanik gustatu izan zaizkit ariketarekin eta bizimodu osasuntsuarekin lotutako kontuak. Nire sare sozialak indartu eta gorputza lantzearekin zerikusia duen eduki gehiago sortzeko asmoa ere badut, gogoko izateaz aparte etekin ekonomikoa ateratzeko aukera ere badagoelako.

"Umetatik argi nuen zer egin nahi nuen bizitzan; futbola besterik ez nuen buruan"

"17 urtera arte geratu nintzen jaiolekuan; amak ikasketak amaitzera behartu ninduen"



CD Elgoibarko atezaina izan da azken hiru urteetan. UTZITAKOA

Zerbitzuen gida

Ezagutarazi zure zerbitzua
Debabarreneko herrietan

- 24 € Hilean** 24 euroren truke, hileroko zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARRENA astekarian!
- Erakusleihoa** BARRENA astekaria Debabarreneko erakusleihoko ikusienetakoa da.
- 10.500 ale astero** 10.500 ale banatzen ditugu Debabarrenean zehar DOAN!

ARROZTEGIAK

DEKORAZIOA

ERABERRITZEAK

Jarri zure
publizitatea

MEKANIKARIAK

BIENA S.L.
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

KM design

Kita Murrieta 943 75 99 85

komunikazio@vodafone.es Puz. Anaboga 5 BENGARA
www.kmdesign.es

GOKI
erreformak

**FATXADA BIRGAITZEAK
ETA ERREFORMAK**

ELGOIBAR 943 74 42 23 SORALUZE 943 12 57 41

ITURGINTZA

SORALUZE MOTOR

Mendiola Ind. 13 Soraluze
474 554 817 - 943 75 21 38

iv

MAR
ARROZTEGIA

Olaio industriagunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
caipintekalmar@hotmail.com

ELEKTRIZITATEA

IGELTSEROTZA

SANTANA
Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santana.iturgintza@gmail.com

PINTURAK

iraolagoitia

oroategia - altzoriek - etxe-aldaketak

Kurutx-gain industriagunea, 9
20850 Mendina
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

laibi²⁵ urte

Mendiola Industrialdea 13
Soraluze
Tel. 943 75 12 69
www.laibi.net

IZAGUIRRE
Igeltseritza

Erakin berriak - Kalitateko emaitza
Erreformak - Era gazteko igeltseritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913

LEIHOAK

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

Jarri zure
publizitatea

Elektrizitatea Iturgintza
Igeltseritza Pintura

EXGA S.L.

679 623 684 Soraluze

Jarri zure
publizitatea

ODRI
ATEAK ETA LEIHOAK

Aluminio eta PVC oroategia
662 234 609
odri@leioak@gmail.com
Sagar Errota Kalea 2, 20580 SORALUZE

Mota guztietako leihoak, sementa eta kargurietak.
Alak, leihoak, partoiak, zerrak, etxe-erretak
eta bitxiak pertsona ditugu.

ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA

amurta
dekorazioa
instauratza

Tel. 943 75 13 24 - Mug. 652 77 70 30

Zerbitzuen gidan agertu nahi izanez gero, deitu edo
Whatsappera idatzi telefono zenbaki honetara:

688 76 96 57



Laura Rodriguez, mendian korrika. UTZITAKOIA



Laura Rodriguez, ahalegin betean. UTZITAKOIA



Laura Rodriguez, Zegaman. UTZITAKOIA

"Esna amets egitea modukoa izan da, sekulakoa; ez dut berehalakoan ahaztuko"

LAURA RODRIGUEZ MENDI LASTERKARIA ETA ESATARIA

Zegama-Aizkorri lasterketaren 25. edizioan esatari-lanak egin ditu Laura Rodriguezek; lasterketa horrek izan duen emakumezko lehen esataria

Ainhoa Andonegi

Laura Rodriguez (Elgoibar, 1984) mendi lasterkaria da, baina azken urtean beste zeregin batean ere badabil: esatari. Kasualitatez iritsi da mundu horretara, eta joan den domeka gogoangarria izan zuen. Zegama-Aizkorri lasterketa entzutetsuan esatari-lanak egin dituen estreinako emakumezkoa izan da Rodriguez. **Zegama-Aizkorri lasterketan esatari-lanak egin zenituen domekan. Nolako izan zen esperientzia?**

Esna amets egitea modukoa izan da; sekulakoa; ez dut beheralakoan ahaztuko. Ez zen nire lehen aldia izan; dagoeneko egin izan ditut esatari-lanak lauzpabost lasterketatan, baina Zegama-Aizkorri mendi lasterketen artean gorena da, Txapeldunen Ligako kategoriakoa, eta, niretzat, munduko mendi-maratoirik onena. Berez, herri txiki bateko laster-

keta da, baina Zegamako plaza izan zen munduko eszenatokirik handiena. Izar guztiak han bilduta ikustea hunkigarria izan zen. Oraindik emozionatu egiten naiz domekako gogoratzean. Lasterketa hori beti izaten da berezia, eta, 25. urteurrena izanik, are bereziagoa. Domekakoak handia izateko osagai guztiak zituen, eta, beti bezala, aurreikuspen guztiak bete ziren: lau urtarok izan zituen klimatologia aldetik, ikusle pila bat, korrikalari onenak...

25 urtean estreinako emakumezko esataria izan zara. Nola iritsi zaizu aukera hori?

Iazko irailean egin nuen estreinakoz esatari-lana, Ermuko Hiru Txikiak mendi lasterketan. Antolatzaileak lagunak ditut, eta esan zidaten emakumezko bat nahi zutela esatari-lanak euskaraz egiteko. Kasualitatez, laster-

keta hartan Zegamako zinegotzi bat zegoen. Abenduan deitu zidan proposamena egiteko! Ermuko lasterketa hark horrelako oihartzuna izango zuenik ez nuen espero. Emakumezko esatari gutxi gaude, eta animatu egingo nituzke probatzera. Oso eskertuta nago aukera hori eman didatelako, eta ia urte amaiera arte ditut lasterketak lotuta. **Urduri egongo zinen. Nola kudeatu zenuen egoera?**

Saiatu nintzen egunera arte ez pentsatzen, eta egoera kontrolatzen, baina eguna iritsi zenean oso urduri jarri nintzen. Hizketan hasi ahala lasaitu egin nintzen, eta gero, gozamina izan zen. Mendi lasterketako elite guztia helmugara iristen ikustea sekulakoa iruditu zitzaidan. Larunbatean aurkezpen-ekitaldia izan genuen, eta esango nuke iaz baino jende gehiago egon

zela. Nik uste dut urteurrenaren aitzakian jende asko etorri dela aurtan, bai euskal herritarrek eta baita kanpotarrak ere. Helmugako bizipen hori guztia niretzako berria izan da, eta izugarri gustatu zait. Orain arte ikusle moduan eta partaide moduan ezagutzen nuen, eta aurtan helmugan egon naiz, esatari-lanetan.

Barrutik eta kanpotik ezagutzen duzu lasterketa. Zer eman dizu ikuspegi bakoitzak?

Korrikalari moduan hori bizitzea hunkigarria izan zen, eta esango nuke hasieratik amaierara egin nuela negar. Ikusleen animoak asko hunkitu ninduten, eta Sancti Spirituko bizipena han bertan sentitzea oso berezia izan zen. Ikusle bezala, asteburu-pasa joaten gara, eta oso polita izaten da. Aurtengoa berria zen niretzat, eta korrikalariak helmugara iristen zirenean banekien zer sentitzen ari ziren, nik ere bizi izan dudalako. Batzuek zerura begiratzaren zuten, beste batzuek lurrera, batzuek irribarrea zuten aurpegian, beste batzuek malloa... Keinu horiek guztiak ulertzen nituen, eta oso polita iruditu zitzaidan helmugaratze hori bizitzea.

Nola hasi zinen mendi lasterketetan? Orain dela 14 bat urte hasi nintzen korrika, asfaltoan. Herri lasterketak egiten nituen, baina, mendia probatu nuenean, errepideko zapatilak erantzi eta mendikoak erosten hasi

nintzen. Mendiak harrapatu egin nau, eta pandemia ostean hasi nintzen ultra-lasterketak egiten. Egin ditut dagoeneko Ehun Miliak, Domusa, G2H, Anetoko ultra... Asteburu honetan ere hartuko dut parte lasterketa batean, eta Europako mendietan ere egingo ditut beste bi proba aurrerago. Entrenatzaile bat daukat, eta ordu asko eskaintzen dizkiot korrika egiteari. Fisikoaz gain, burua ere entrenatzea garrantzitsua da. Lasterketa batean burua bere lekuan edukitzea ezinbestekoa da.

Zer ematen dizu mendiak?

Terapia modukoa da niretzat. Mundutik deskonektatu eta neure buruarekin konektatzen naiz mendian. Azken finean, niretzako momentua da; askatasuna.

"Emakumezko esatari gutxi gaude, eta nik neuk animatu egingo nituzke probatzera"

"Mundutik deskonektatu eta neure buruarekin konektatzen naiz mendian"

Elgoibartarrek eginiko musika jendaurrera atera dute EME Egunean

Elgoibarko Musikarien Eguna ospatu zuten zapatuan

Ainhoa Andonegi

EME Eguna ospatu zuten zapatuan Elgoibarko musikariek, eta herrian bertan eginiko musikaz gozatzeko aukera eskaini zieten herritarrei. Eguerdian ekin zioten jaiari: Gabi eta Al-

fon bikotearekin hasi zen ekitaldia, Aita Agirren, eta, segidan, Leftovers taldeak eman zuten kontzertua. Giro bustia zegoen zapatuan eta, tarteka, zaparrada mardulak ere bota zituen; horren ondorioz, Aita

Agirreko arkupeetan izan ziren emanaldiak.

Bertsio gaua

Elkarrekin bazkaldu zuten musikariek, eta arratsaldean iritsi zen egunaren bigarren

zatia. Xut taldea igo zen lehenengo oholtzara, eta garai bateko kanta ezagunen bertsioak jo zituzten. Brilet taldeak dantzari jarri zuen Maala, eta, azkenik, Ellie Jensen taldeak eman zuten kontzertua.

Gauean bertsio gaua egin zuten. Pedro Mugurutzako eraikinean batzen diren taldeetako kideak nahastuta igo ziren oholtzara, eta hainbat talderen bertsioak jo zituzten. Urteroko zita bilakatu da EME Eguna, eta herritar asko batzen dira urtero.

Elgoibarko Musikarien Elkartea 2018an sortu zuten, eta 2022an antolatu zuten EME Eguna estreinakoz. Gaur egun, hamasei talde daude Pedro Mugurutzako eskola zen eraikinean, eta elkarreak 79 bazkide ditu. Hain zuzen ere, eraikinaren eraisketak kezka sortu du musikarien artean, eta Udalarekin landu nahi dute etorkizunerako bidea. Horren harira, baikor daude, eta, beraz, azken urteotako kolaborazioak fruituak emango dituela espero dute.



Leftovers. AINHOA ANDONEGI



Gabi eta Alfon. AINHOA ANDONEGI



Maalako parkea, gainezka. JOSERRA CABRERA



Brilet. AINHOA ANDONEGI



Ellie Jensen. AINHOA ANDONEGI



Xut. AINHOA ANDONEGI



EMeko kideak, Maalan. EME

Elgoibarko Zientzia Azokaren bosgarren aldia egin dute Sigmako probalekuan

Ainhoa Andonegi

Bosgarren urtez antolatu dute Elgoibarko Zientzia Azoka, eta Sigmako probalekua zientziaz bete zuten zapatu goizean. Herriko eskola-umeek ikasturtean zehar egindako proiektuak aurkeztu zituzten eta ikasitakoari buruzko azalpenak eman zizkieten herritarrei. Bizilabeko eta Robotikako ikasleek ere izan zituzten postuak,

eta, besteak beste, proiektua egiteko jarraitu beharreko urratsak, izandako zailtasunak eta gainditu beharreko erronkak azaldu zizkieten bertaratu zirenei. Guztira, 231 umek hartu zuten parte aurkezpen haietan.

Esperimentuak

Elhuyarrek, bestalde, zientzia eta teknologiako taile-

rrak eman zizkien 6-12 urte arteko umeei. Haur Hezkuntzako umeentzat ere hainbat txoko izan ziren eta ikuskitzuna egin zituzten. Guztira, 578 plaza zeuden esperimentuetan parte hartzeko, eta guztiak bete ziren. Elgoibarko Udalak azokaren gaineko balorazio positiboa egin du.



Zientzia Azokako irudiak. AINHOA ANDONEGI



Petanka-pista egiteko obrak hasi dituzte aste honetan

A.A.

Petanka-pista egiteko lanak hasi zituen Elgoibarko Udalak martitzenean. Herriko jubilatuen ekimenez sortu zen proiektua, eta Udalak beteko du egitasmoa. Pista 12 metro luze eta 3 metro zabal izango da, eta egurrezko zeharromekin eraikiko dute. Geruza geotes-

til bat izango du, eta haren gainean hareazko geruza batzuk jarriko dituzte. Markagailu bat eta materiala gordetzeko armairu bat ere jarriko dituzte. Ondo bidean lanak ekainerako amaituta egongo direla aurreratu du Udalak. Obraren aurrekontua 5.650 euro da -gehi BEZa-.



Toletxe kaleko parkean egingo dute pista. UDALA

Taupadak eskerrak eman dizkie emanaldira bertaratu ziren ikusleei

A.A.

Taupada antzerki taldeak *Nahi eta ezin* antzerkia aurkeztu zuen joan den barikuan Herriko Antzokian. Urte osoan antzerki tailerretan eginiko lanaren emaitza izan da obra hori, eta jendaurrean erakutsi dute orain. Antzerki taldekoek eskerrak eman dizkiete emanaldira ber-

taratu ziren herritarrei; izan ere, antzerkiak ikuslerik gabe ez dauka izaterik. Obraren zuzendari Edurne Lasak adierazi du herritarrengandik jaso duten berotasunak eta obrak izan dituen kritikak hunkitu egin dituela, eta, aldi berean, berretsi egiten duela ilusiotik egiten duten antzezlanaren zentzua: "Grina eta

ilusio berberarekin jarraituko digu lanean, eta eskerrak eman go dizkizuegu aretoa bete, txalotu, sentitu eta antzerkiak bizirik jarrai dezan ahalbidetzen duzuenoi".

Herriko aurpegi ezagunez bete zuten oholtza, batzuk beteteranoak eta besteak ez horrenbestekoak, baina nork beretik eman zuen. Emanaldiaren amaieran, aitortza egin zioten Edurne Lasari, antzerki taldean egiten duen lanagatik, eta lore-sorta bat oparitu zioten.



Taupadako kideak, Herriko Antzokian. TAUPADA

EXPRESS ESKAINTZAK!

X-FORCE 8.80 RH1833EO
ERRATZ XURGAGAILUA

179 €

- 100 AW
- 0,44 litroko edukiera
- Kablerik gabe
- 45 min. autonomia
- Iragazki garbigarriak
- Osagarri ugari ditu

MILARBIRE Ubitarte, 11 - 943 741 487
bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
943 740 704 - 639 047 337
Astelehenetik ostiralera:
11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Espainiari zerbitzuak ematen ditugu. Datu ordu hartzen.

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

943 740 570 / 636 986 162

Barrena
DEBARRARENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

943 743 704
688 769 657

Jarri ezazu
zure publizitatea
BARRENA astekarian
edo
www.barrena.eus
webgunean

NIRE USTEZ

Euskarari behar duen tornua

ENEKO ETXANIZ
IKASLEA

Ez dakit hurbilenekoak zaizkidan testuinguru linguistikoez zerikusirik ote duten, baina gero eta ahulagoak iruditzen zaizkit euskararako hautuaren aldeko diskurtsoak. Egia da azken urteetan hainbat alorretako joerek erakusten duten bilakaera positiboaz hitz egitea lagungarri izan daitekeela korrontearen kontra arraunean dabilenari zama eraiste aldera. Baina zapalduak, minorizatuak edo prekarioak diren esparruetan loraldi edo urrezko aroez hitz egiten dugunean, irudipena daukat elikatzen ditugun usteak guk uste baino ustelagoak direla.

Zinemak edota musikak bizi dituzte garairik oparoenak, baina pantaila handian edota pabiloi eta estadioetan ikusten ditugun ekoizpenei gorazarre egiten diegun bitartean, aktore euskaldunak Madrilen egonaldi luzeak egin beharrean dira, diskoetxe eta argitaletxeak atek itxi beharrean, teknikariak beti greban eta musikariak beti bezain prekario.

Gauzak horrela, uste dut hobe genukeela loreak afalosterako uztea eta kultur esparruan euskararako hautuaren baitan hedatzen diren diskurtsoei beste begi batzuekin begiratzea.

Izan ere, euskara liburueta, pantaila edo oholtzara naturaltasunez eramatea ondo dago, baina naturaltasun hori ezin da ulertu ibilbide historiko odoltsurik edota hiztun orok

pairatzen diharduen zapalkuntza eta oinarrizko giza eskubideen urraketarik gabe. Nork bere burua erdaretan jardutera behartu beharrik ez izateak ere ez luke inor euskaraz modu kontzientean jardutetik eta honen ardura soziopolitikotik salbatu behar. Baina kontuz: ardura hori gure burua saritzeko baliatzea ere ez baitzaigu komeni. Ez diogu euskaraz aritzeko aldarriari muzin egingo, baina euskaraz aritzea bera nabarmendu beharrak normalizaziotik urruntzen gaitu.

Bestela esanda, ez dugu zaindu beharreko txantxangorri txiki, polit eta preziatu bat izan nahi, ez eta bere lumadia erakusgarriki aireratuko duen arranoaren hegaldirik ere. Euskarari behar duen tornua eman baino ez.



SEMAFORO

Aparkalekua, murriztuta

"Azkenaldian, ohiko bilakatu da txirrindularitza lasterketak daudenean Elgoibarko Maalako aparkalekuaren zati bat haiantzat gordetzea. Elgoibarren arazo handia daukagu aparkatzeko, eta ez dut ulertzen zergatik baimentzen duen Udalak hainbat egunetan aparkalekua murriztea. Ez dakit zein interes dagoen horren atzean, baina herritarren beharrak bigarren mailan geratzen dira, eta iruditzen zait herritarrei eman behar zaiela lehentasuna".

KLIK

Trena, Azpeitian

NAGORE CANCIO
ARGAZKILARIA

Euri tanten artean, trenaren keak iraganeko ametsak esnatzen ditu.

**Autoak, gaizki aparkatuta**

"Gidari askok edozein modutan lagatzen dute autoa Maalako eliza inguruan, eguerdietan. Uste dugu han inguruan bazkaltzen duen jendea izaten dela, eta ez zaigu bidezkoa iruditzen. Gu han bizi gara, ez daukagu garajerik eta hamaika buelta ematen ditugu autoa ondo aparkatzeko. Gune hura ez dago araututa, baina, guk dakigula, ezin da aparkatu, eta aparkatzea libre bada, denontzat izan beharko luke".



"Txalo bat eman nahi nioke musika eskolari, joan den asteko koruko kontzertuagatik. Aurtengoa ere sekulakoa izan da. Izugarria da gure seme-alabekin egiten duzuen lana. Segi horrela, eta mila esker gutioi".

Bi milatik gora zuhaitz landatu ditu Baso Biziak elkarteak neguko kanpaina

Bertoko zuhaitzak landatzeko bi lursail erosi dituzte Muskirutzun



Baso Biziak elkarteak, lanean. BASO BIZIAK

Ainhoa Andonegi

Elgoibarko Baso Biziak taldeak bi lursail erosi ditu Muskirutzuko mendilerroan: 2,4 hektareatakoa bata eta 0,9koa bestea. Eredu horiei esker, 15,2 hektarea ditu elkarteak bere izenean. Horrez gain, hamar lurjaberekin dituzte adostuta hitzarmenak, eta horietan ere landatzen dituzte bertoko zuhaitzak. Beraz, 23 partzela dituzte; 43,74 hektarea. Guztira, 59 hektarea kudeatzen ditu elkarteak.

Neguko kanpainaren emaitzak

Iazko azaroan hasi zuten zuhaitzak landatzeko sasoia, eta negua bukatu arte aritu ziren bertoko espezieetako zuhaitzak landatzen. Guztira, 2.436 zuhaitz landatu dituzte 2025 eta 2026 arteko landaketa sasoiari. 2022tik hona, bertoko espezieetako 9.259 zuhaitz-landare landatu dituzte, eta ari da itxuratzen bertoko espezieen osatutako

basoa. Hona urtez urteko landaketa datuak:

Landaketa datuak

2022-2023: 1.895
2023-2024: 2.697
2024-2025: 2.231
2025-2026: 2.436
Guztira: 9.259

Transformadore elektrikoa, kokatuta



JABI LEON

Anbulatorio berriko lanen ondorioz, lekuz aldatu behar izan dute merkatu plaza azpiko transformadore elektrikoa. Joan den bari-kuan kokatu zuten San Frantzisko iturri azpian. Ibilgailu berezi batean eraman zuten pieza, eta garabi handi batekin kokatu zuten kokaleku berrian. Hilabete inguru beharko dute egungo transformadorea deskonektatu eta berria martxan jartzeko.

Bihar egingo dute maiatzeko azken zapatuko feria

Maiatzeko azken asteburuan Trinitate jaiak ospatuko dira Elgoibarren, eta ordurako azoka berezia antolatu dute. Horren ondorioz, salbuespena egingo dute hilabete honetako azken zapatuko feriarekin. Elgoibarko Udalak astebete aurreratzea erabaki du, eta bihar izango da, beraz. Aita Agirre plazan

egingo dute, goizez. 09:00etatik 14:00etara, Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera egongo da, eta Elgoibarko Artalde Artisan Taldekoek ere jarriko dituzte salmenta-postuak. 11:00etan, Altolako Auzo Elkarteak txosna zabalduko du, eta Elgoibarko baserrietako eta harategietako produktuekin prestatutako pintxoak salduko dituzte. Horrez gain, 12:00etatik 14:00etara talo-tailerra egingo dute etxe txikienezat.

Herriko museoak bete egin ziren Museoen Nazioarteko Egunean



AINHOA ANDONEGI

Mufomi fosil eta mineralen museoa, Hezur Museoa eta Makina Erremintaren Museoa zabalik egon ziren domekan, Museoen Nazioarteko Egunean harira, eta herritarrek bisitan joateko aukera izan zuten. Goizean zein arratsaldean egon



AINHOA ANDONEGI

ziren irekita, eta arduradunek museoetako buruzko azalpenak eman zituzten. Elgoibarko Udalak "balorazio positiboa" egin du, eta eskerrak eman dizkie hori posible egin zuten boluntarioei.

Elgoibarren bukatuko da Emakumeen Gipuzkoako Itzulia

Asier Orbea Ostolaza ELGOIBAR

Bigarren urtez jarraian, Elgoibarren argituko da zein den Emakumeen Gipuzkoako Itzuliko irabazlea, herrian hasi eta bukatuko baita azken etapa, igandean.

Hiru etapa; bi, Debabarrean

Tolosatik abiatuko da Itzulia, gaur, erlojuaren aurkako 3,7

kilometroko saioarekin. Bigarren etapa, berriz, Deban hasi eta bukatuko dute, larunbatean. Bi ibilbidetan lehiatuko dira txirrindulariak: batetik, kadete mailakoak; eta, bestetik, junior, 23 urtez azpiko eta elite mailako txirrindulariak. Hala, kadeteek 43 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute Debako etapan, eta 56 kilometrokoan helduek.

Elgoibarko etapan, 35,4 kilometroko izango da kadeteentzako ibilbidearen distantzia, eta 88,9koa besteentzat. Hain zuzen ere, 09:00etan abiatuko dira gaztetxoak eta 10:30ean, berriz, nagusiak. Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioak Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolaren laguntza izango du antolakuntzan.



Iaz ere Elgoibarren jokatu zuten Gipuzkoako Itzuliko azken etapa. UTZITAKOIA

Kolore guztietako dominak irabazi dituzte Zartako arkulariek Euskadiko Txapelketan

Euskadiko Basoko 3D Arku Tiro Txapelketan lehiatu dira Zartako bost kide

A.O. LEGUTIO

Legutioko Larrabea parkean lehiatu ziren arkulariak, 24 dianaz osatutako zirkuituan. Dianek animalien formak izan ohi dituzte basoko 3D txapelketetan; untxi edo hegazti txikietatik hasi, eta lehoiak, krokodiloak eta hartzak ere izan daitezke animalien hiru dimentsioko irudiak. Irudi bakoitzari bi gezi bota behar dizkiote partaideek.

Hugo Sierra, Euskadiko txapeldun

Zarta taldekoek lortutako emaitzei dagokienez, Hugo Sierrak arku tradizionalen kategorian lortu zuen urrezko domina azpimarratu behar da. Euskadiko Txapelketa irabazteaz gainera, lehen postua eskuratu du Euskal Ligan. Eta Javier Varona taldekidea izan zen txapeldunorde,



Euskadiko Txapelketan lehiatu ziren Zartako arkulariak. ZARTA

bai Euskadiko Txapelketan eta baita Euskal Ligan ere. Eneko Altuna arku konposatuen modalitatean lehiatu zen, eta bronzeko domina eskuratu zuen

txapelketan zein ligan. Sierraz, Varonaz eta Altunaz gainera, Mikel Garbisu eta Iosu Arrillaga ere lehiatu ziren Euskadiko Txapelketan.

21 xakelari ari dira lehiatzen Udaberriko Berkoa xake txapelketan

A.O.

Udaberriko Berkoa xake txapelketaren hirugarren ekitaldian 21 xakelarik eman dute izena. Ohikoa duten moduan, Mintxeta tabernan jokatu dituzte txapelketako partidak, astero, suitzar erara, ekainaren 21era bitartean. Lehiakideek elkarren

artean jarri behar izaten dute ados asteko partida jokatzeko, eta, ez badute akordiorik lortzen, domekan jokatu behar dute. Bietakoren bat azaltzen ez bada, galdutzat ematen zaio partida. Iaz, Felix Mansok irabazi zuen Zubi Ondo Xake Taldeak antolatzen duen txapelketa.



Xakelariak Mintxeta tabernan. MINTXETA TABERNA

Kopako finalerdia jokatu du Erregional Mailako taldeak

A.O.

Gipuzkoako Erregional Mailan diharduen CD Elgoibarko taldeak Kopa txapelketako finalerdietako bat jokatu du. Igoera faserako sailkatzerik lortu ez zuten 30 taldeek jokatu dute Kopa txapelketa, lau multzotan banatuta. Multzo bakoitzeko lehen sailkatuek jokatu du

tuzte finalerdia, eta Elgoibarko taldea da horietako bat, laugarren multzoko onena izan baita. Elgoibarrek Lasarteko Ostadar taldea izango du aurkari, eta partida bakarrera jokatu dute finalerdia. Lasarte-Oriako Atsobakar futbol zelaian jokatu dute neurketa, bihar (12:00).



Erregional Mailako taldea. CD ELGOIBAR

PUBLIRREPORTAJEA

Autokontsumo fotovoltaikoa herritarren eskura, inbertsiorik gabe, Elgoibarren

30 familiak aukera izango dute zero kilometroko argindarra kontsumitzeko

Trantsizio energetikoa ez da jada urruneko helburua, geure herriko teilatuetan pixkanaka gertatzen ari den errealitatea baizik. Elgoibarren energia eredu jasangarriago eta demokratikoago baterako bidean beste urrats bat egin dute duela gutxi. Goiener kooperatibak, Etxepe tailerrarekin elkarlanean, autokontsumo partekatuko instalazioa jarri du enpresaren eta herritarren zerbitzura.

Nola funtzionatzen du proiektuak?

Gertuko energia sortzeko eta kontsumitzeko modu kolektiboa da. Goiener Taldeak instalazio fotovoltaiko bat jartzen du herriko eraikin baten gainean, eta bertan sortzen den energia-soberakina Goienerren bazkideen artean banatzen dute.



Asier Arsuaga, Goiener berriztagarrien kooperatibako teknikaria. GOIENER

Etxepeko instalazioak 99,6 kWp-ko potentzia du eta urtean 100.000 kWh sortuko dituela aurreikusten dugu. Tailerrak behar duen energia hartu ondoren, 39.000 kWh-ko soberakina geratuko da herritarren

arte banatzeko. Kalkuluen arabera, 30 etxebizitzak autokontsumituko dute bertatik.

Inbertsiorik eta obrarik gabe

Parte hartu nahi duten bizilagunek ez dute inolako inber-

tsiorik egin behar, soilik Goienerren bazkide eta bertan kontsumitu. Goienerrek bere gain hartu du instalazioaren kostua. Parte-hartzaileek prezio finko bat ordainduko dute kontsumitutako argindarragatik, eta prezio horrek ez du izango sare elektrikoaren kargurik, bidesaririk, ezta argindarraren gaineko zergarik ere. Gainera, ez da obrarik egin behar etxean. Ohiko argindar sarea erabiltzen da, eta kontagailu bidez neurtzen da zenbat energia sortzen duen instalazioak eta zenbat kontsumitzen duen puntu bakoitzak. Baldintza bakarra da instalaziotik bi km-ko erradioan gotea.

Eragin positiboa ingurumenean eta poltsikoan

Tokiko energia berriztagarria kontsumitzeaz gain, proiektu honek onura ekologiko nabarmena du. Urtean 10,8 tona CO2 isurtzea saihestuko da. Ekonomikoki ere aukera bikaina da, egun argiz kontsumituko den argindarraren prezioa jus-

tu eta finkoa izango da, merkatuaren gorabeheretatik salbu. Gauetz kontsumitzaileek argindarra saretik ohiko eran hartzen jarraituko dute.

Nola parte hartu?

Ineteresa dutenek formularioa bete behar dute proiektuaren webgunean. Prozesua sinplea da: 1. Formularioa bete zure datuekin –izan argindar-faktura eskura eta bertako HPKU/CUPS kodea-. 2. Goienerreko bazkide izan –edo bazkide-. 3. Kontratu berria sinatu, zure puntuak autokontsumo instalazioak sortzen duena aprobe-txatzeko.

Informazio gehiago

Elgoibarko Ikastolan, maiatzaren 27an, 10:00etatik 12:00etara. Aurrez ordua eskatzeko edo proiektuarekiko interesa azaltzeko: www.labur.eus/auz47

Iosu Rodriguez kulturista Europako Txapelketarako prestatzen ari da

Asier Orbea ELGOIBAR

Iaz Dubain (Arabiar Emirerri Batuak) lehiatu zen kulturista elgoibartarra, Munduko Kulturismo Natural Txapelketan. Bosgarren postuan sailkatu zen, eta, emaitza hark eta hobetzeko gogoak hauspotuta, lehiatzen jarraitzea erabaki du, atsedean luzeagoa hartzea aurreikusia baitzuen. Aurten

Belgikako Bredene hirian jokatuko den Europako Txapelketa du begiz jota. Aurrez, baina, Valentzian eta Italian lehiatuko da.

Kategoria berrian

Erronka berriak ere jarri dizkio bere buruari, kategoria berri batean lehiatu nahi baitu, txartel profesionala lor-

dezakeen ikusteko. Orain arte, Physiquemania kategorian lehiatu izan da profesional gisa, eta Mens Physique izeneko kategorian lehiatzen hasi nahi du orain. Horren harira, Lirisan (Valentzia) jokatuko den Kulturismo Txapelketan hartuko du parte asteburu honetan; eta hurrengoan Riminin (Italia) lehiatuko da.



Iosu Rodriguez Dubain jokatutako Munduko txapelketan. UTZITAKOA

DanobatGroup, txapeldunorde enpresen arteko lasterketan

A.O.

Donostiako kaleetan jokatu zuten, domekan, Enpresen Arteko Lasterketa, 8,5 kilometroko ibilbidean. Inoiz baino partaidetza handiagoa izan zuen lasterketaren hamazazpigarren ekitaldiak: 4.340 korrikalari lehiatu ziren, 1.085 taldetan banatuta. Modalitate mistoak izan zuen

partaidetzarik handiena, 630 talderekin; gizonezkoenean 373 talde zeuden izena emanda; eta 112 emakumezkoenean. Lehiari dagokionez, Smarctec enpresak aurkeztutako taldea izan zen azkarrena (28:23), eta DanobatGroup kooperatibako taldeak egin zuen bigarren denborarik onena (29:34).



Txapeldunorde izan zen DanobatGroupeko taldea. ANTOLATZAILAK

"Umeei amets eginarazi nahi diegu, irudipena dugulako gutxiegi egiten dutela"

AMAGOIA BASURTO TXOKO TXIKI PROIEKTUAREN ARDURADUNETAKO BAT

Ainara Argoitia MENDARO

Motxaila Herria maketa sortu zutenen ekimenez sortu da biharko iragarri duten orientazio-jolasa (11:30). Hain zuzen ere, Arno guraso elkartearen eta Udalaren laguntzarekin egingo dute. Mendaroko eskola-umeentzat antolatu dute jolasa, eta LH1ekoek eta LH2koek heldu batek lagunduta parte hartu beharko dute. Izena emandakoentzako da; izan ere, atzarako jakinarazi behar zuen parte hartu nahi zuenak.

Magiaren munduan barneratzeko jolasa izango dela aurreratu duzue. Zerk jarri zaituzte horretara?

Motxaila Herria maketarako sortu genuen miniaturazko figurekin zerbait gehiago egin nahiak jarri gaitu horretara. Ingurune natural batera eraman eta Instagrameko gure kontura [TxokoTxiki] igotzen aritu gara figurak, eta Gabonetan ipuin bat sortu genuen. Bada, hori guztia batu, eta umeekin zerbait egin nahi izan dugu, eta hala sortu dugu Txoko txiki orientazio-jolasa, bi helbururekin: orientatzen ikasteko oinarritzko pare bat kontu ikastea eta herriko gune berdeetan dauzkagun



Egoitz Horrillo eta Amagoia Basurto, artxiboko irudi batean. AINARA ARGOTIA

zuhaitz batzuen izenak ikastea. Proba bat izango da zapatukoa, eta ea buruan dugun hori itxuran gauzatzeko gai garen.

Altxorren bila antzeko bat izango dela zenioen aurrekoan. Nola duzue pentsatuta antolatzea?

Trinitaten hasi eta bukatuko dugu jolasa. Guk, ordurako, Azpilgoeta eta Mendarozabalgo hiruna zuhaitzetan miniaturazko figura batzuk ezkutatu ditugu, eta, jolasa hasteko, ipuin bat irakurriko diet Trinitateko iparrorrazaren gainean jarrita. Esango diegu zuhaitzen

zaindariak Mendarora iritsi direla eta Mari Domingik herrian bertan ezkutatu duela Ametsen Kutxa. Magiaren zaindari bihurtuko ditugu umek, eta ezkutatuak figuratxoak topatu beharko dituzte, gainditu beharreko probak egongo baitira haietan gordeta. Proba horietako bakoitza askatzen dutenean, zuhaitzak zer izen duen jakingo dute, eta zuhaitzaren izena ematen dutenean pista bat emango diegu guk. Sei pista izango dira guztira, eta denak biltzen dituztenean

esaldi bat osatuko dute. Esaldi horrekin Trinitatera itzuliko dira, eta iparrorratza dagoen lekutatik norabide jakin batean pauso batzuk eman eta Ametsen Kutxarekin egingo dute topo. Ipuina kontatzen diedanean azalduko diet bi amets sartu nituela nik bere garaian kutxa horretan, bat bete zaidala, eta, nahi baldin badute, kontatuko diedala. Umeei amets eginaraztea da gure asmoa, irudipena dugulako gaur egungo umek gutxiegi amets egiten dutela. **Taldeka ala bakarka da jolasa?** Gure asmoa umek bi taldetan banatzea da, talde bakoitza herriko auzo batera joan dadin, heldu batek lagunduta. Hori bai, garbi utzi nahi dugu ez dela lasterketa gisa planteatzen jolasa. Batzuk Azpilgoetara eta beste batzuk Mendarozabalera joango dira, baina talde berekoak elkarrekin.

"Ez da lehia, ez da lasterketa; elkarrekin gure inguruneaz ikasteko jolasa da", nabarmendu duzue.

Hori da. Saiatu naiz zuhaitzen izenarekin lotutako jolasak asmatzen, nik sistema hori erabili izan nuelako umetan gauzak ikasteko. Hobeto barneratzen nituen ikasi beharrekoak objektu edo kolore jakin batekin lotzen edo kolore jakin batekin lotzen baldin banituen, eta honek balio badu umek, une batez bada ere, herrian ditugun bost arbolari erreparatzeko eta haien izenak barneratzeko, ni pozik; ezagutzea garrantzitsua da daukagunari duen balioa emateko.

Matrikulazio-aldia zabalik Ameikutz musika eskolan

Datorren ikasturterako izena emateko epea zabaldu dute Ameikutz musika eskolan. Interesatuak iameikutz@gmail.com helbidera idatzi edota 619 30 64 93 / 943 25 42 75 telefono zenbakietarako batera deitu behar dute.

Era berean, musika eskolak jakinarazi du datorren astean, maiatzaren 27an, hasiko dituztela ikasturte amaierako jaialdiak: trikiti, pandero eta txistu-ko ikasleen emanaldia izango da lehenengoa, hilaren 27an, 19:00etan, San Agustinen; ekainaren 2an, berriz, piano, biolin eta gitarra ikasleen txanda izango da; eta ekainaren 9an, bate-riakoena.

Haurren hizkuntza-ohituretan eragiteko tailerra hilaren 27an

Nola eragin gure haurren hizkuntza-ohituretan? tailerra antolatu dute UEMAK, Mendaro Ikastolak, Arno Guraso Elkarteak eta Udalak, elkarlanean, maiatzaren 27rako, asteazkena. Familientzako tailerra da, eta ikastolan egingo dute, 17:30etik 19:00etara. Izena ikastolan eman behar da, maiatzaren 25a aurretik.

Ostadarren koloreak dituen bandera egin dute eskola-umek

Homofobiaren, Lesbofobiaren eta Transfobiaren Kontrako Nazioarteko Eguna izan zen igandea, maiatzaren 17a, eta, kari horretara, astelehenean plazara irten ziren eskola-umek. Maila bakoitzeko bina ume udaletxeko balkoira igo ziren, elkarrekin manifestua irakurtzeko, eta gainera, ikaskideak plazan eserita egon ziren, adi-adi. Horren ondoren, ostadarren koloreetako bandera osatu zuten, kartulina-txatalak buru gainean jarrita, eta dantza librean aritu ziren gero.



AINARA ARGOTIA

Roberto Nieva saxofoi jotzaile handiak kontzertua emango du gaur San Agustinen

Taldearekin arituko da oholtzan, eta 21:30ean hasiko da kontzertua

Ainara Argoitia MENDARO

Punta-puntako musikariak ekartzen ari dira Mesa 7 kultur elkarteak Mendarora, eta gaurko ere beste jazz kontzertu handi bat iragarri dute. Roberto Nieva saxofoi jotzailea gonbidatu dute, nazioarteko jazz-panoramako figura entzutsua, eta San Agustin aretoan emango du kontzertua, eskarmentu handiko beste hiru musikaririk lagunduta: Thiago Alves –kontrabaxua–, Xan Campos –pianoa– eta Francesco Ciniglio –bateria–. Kontzerturako sarrerak Uztargi tabernan eskuratu daitezke aurrez, 15 euroan, baina aretoko sarreran bertan ere erosi ahal izango dira; aurrez amaituko ez balira, behinik behin.

Mesa 7k antolatu du kontzertua, Udalaren, Gararock taldearen eta Uztargi tabernaren laguntzarekin, eta 21:30ean hasiko da. Danel Juarez saxofoi jotzailearen kontzertuarekin hasi zuten urtea, Marina Lledoren kontzertua etorri zen gero, eta, orain hurrengo, Gonzalo del Val bateria jotzailearen kontzertua izan zuten Mendaron. Hirurak ere taldea-



Roberto Nieva. LUIS JAVIER GONZALEZ

rekin aritu ziren oholtzan, eta hala egingo du gaur Roberto Nievak ere.

Musikari ibilbidea

Bere musika-ibilbidean musikari handiekin lan egin izan du Nievak; besteak beste, honako hauekin: Kirk MacDonald, Josh Ginsburg, Martin Nevin, Marta Sanchez, Perico Sambeat, Javier Colina, Alain Perez edo Silvia Perez Cruz. Ezaguna da, baita ere, Madrilgo musika-eszenan.

Lan onak sari ugari eman dizkio, eta nazioartean bide luzea

egin du; adibidez, Suedian, Frantzia, Suitzan, Maltan, Austrian, Herbehereetan, Errumanian, Erresuma Batuan eta AEBetan izan da.

2021ean, mundu osoko hautagaien artean hautatu zuten Focusyear programan parte hartzeko, Basileako (Suitza) Jazz Campusean garatutako graduondoko programa entzutsu batean. Esparru horren barruan, kontzertuak eman zituen Chris Cheek, Sullivan Fortner, Tineke Postma, Wolfgang Muthspiel, Kris Davis, Jorge Rossy, Cuong Vu, Ingrid Laubrock, Miguel Zenon, Elena Pinderhughes eta Guillermo Klein musikariek, eta *Tiny Windows* diskoa grabatu zuen Focusyear Band taldeko kide gisa. Bostonera ere bidaiatu zuen, Berklee Global Jazz Institutuarekin lankidetzan aritzeko; han, Joe Lovano, John Patitucci edo Danilo Perezekin lan egin zuen. *Process* izeneko lehen lana eta *Empirical Sounds* –bigarrena– Estatuko jaialdi garrantzitsuenetako batzuetan aurkeztu izan du, hala nola Donostiako Jazzaldian eta DebaJazzen, hemen gertuan.

'Bizitza baten txatalak' aurkeztuko du gaur, ostirala, Onintza Enbeitak

Euskal Herriko emakume baserritarren belaunaldi oso baten irudia osatuko du Enbeitak; udaletxean egingo du hitzaldia

A.A.

Bizitza baten txatalak liburua aurkeztuko du Onintza Enbeitak (Muxika, 1979) gaur, hilak 22, udaletxeko udalbatza aretoan, 18:30ean, In Leike kultur elkarrekin eskatuta. Foruko (Bizkaia) Baldatika baserrian jaio eta Muxikako Igertu baserrira ezkondu zen Feli Madariagaren (Forua, 1932) bizitza eta bizi-modua jaso ditu Enbeitak liburuan, protagonistaren beraren berbetan. Madariagaren bizitzaren bidez, Euskal Herriko emakume baserritarren belaunaldi oso baten irudia osatu du Enbeitak, ekonomia zirkularra, komunitatea eta elkartasuna oinarritzat izan dituen belaunaldi batena.

Madariagak eta bere belaunaldiko baserritarrek ekoizten zuten saltzen zuten, eta eraiki zuten baserritik bizitzeko modu bat naturaren zikloi erreparatuta. Eguraldiari begira bizi ziren, eta lurraren loadiak eta deskantsuak errespetatzen zituzten beren egitekoan, gaurko ekoizpen eredu intentsiboetan ez bezala. Horixe erakusten du Madariagak. Hori, eta euskal baserriaz zabaldu den irudia



Feli Madariaga eta Onintza Enbeita.

erromantizatu egia dela, beste askotan bezala. Izan ere, emakume baserritarrek oso zaintza-lan lotuak izan dituzte, esker onik gabekoak askotan. Eta horri guztiari buruz jardungo du gaur Enbeitak, baserritarren lanari balioa aitortzeko ondu duen liburua abiapuntu hartuta. Enbeitak esana du liburua idazten hasi zenean Madariagak lurrarekin zuen harremana lantzen hasi zela, bereziki, baina bidean "beste gauza batzuk" topatu zituela. Horiexek aletuko ditu gaurko saioan.

30 buruarin sortu dituzte haurrek eta gurasoek, elkarlanean

50 bat haurrek eta helduk parte hartu zuten joan den barrikurako In Leike kultur elkarteak antolatu zuen buruarinak sortzeko tailerlean. Buruarinak enpresako lagunek emandako jarraibideei adi, eta gurasoek lagunduta, dozena erdi bat lamina, lauzpabost Tartalo, beste hainbeste deabru beltz, intxixu beltzak eta sorginak sortu zituzten haurrek, eskulanerako eta sormenerako talentu handia erakutsita. Buruarin horietako batzuk San Joan bezperako Akelarrean erabiliko dituztela aurreratu dute antolatzaileek.



Liga eta Kopa irabazi ditu Inter FC taldeak, APFE txapelketaren 50. urteurrenean

Martxoan bukatu zen liga, eta apiriletik maiatzera bitartean jokatu da Kopa

Ander Gomez

Ermuko afizionatu mailako futbol txapelketa mende erdiko ibilbidea ospatzen ari da 2025-2026ko denboraldian; baina festarik handiena Inter FC taldeak egin zuen joan den asteburuan: iaz, hirugarren izan ziren ligan, finalurrekoetan galdu zuten Kopa, eta Dragones Negros taldea izan zen txapeldun bietan. Aurten, eurena izan da lorpen bikoitz hori.

Urrian hasi eta martxoan bukatu zuten liga, eta hemezortzi partidutik hamabost irabazi zituzten, bi galdu eta bakarra berdindu. Liga lehiatua izan da, ordea: puntu bakarrera geratu zen Arroyo FC eta hiru puntura finalean aurkari izan zuten Mamba Negra.

Apirilean jokatutako Koparen atarikoan ere elkarren kontra neurtu zituzten indarrak, eta

Inter FCk galdu zuen, 0-1. Hurrengo hitzorduetan, ordea, nagusitu egin zen: Irifien FCren aurka final-laurdenetan (1-3) eta Tribuna FCren kontra finalurrekoan (2-4). Mamba Negra taldea partida guztiak irabazita ailegatu zen finalera: Interren kontrako atarikoaz gain, Topaleku Tabernaren aurka jokatuakoa (4-2) eta Ermua River FTren kontrako (3-1).

Maiatzaren 17an –domeka– jokatu zuten Kopako finala, Betiondoko zelaian, eta lehia estua izan zen. Mamba Negrako Ander Martinezek eta Inter FCko Rudy Kellerrek egin zituzten partiduko gol bakarrak, eta, 1-1 markagailua aldaezin, penaltietan erabaki behar izan zuten txapelduna. Orduan ere berdintsu ibili ziren: 3-2ko aldearekin ailegatu ziren azken jaurtiketara, Interren alde. Mambak Negrak

gola behar zuen, ezinbestean; atezainak noranzkoa asmatu eta baloia gelditu zuen, baina, aurreratu egin zenez, penaltia balioabetu egin zuen epaileak. Bigarren jaurtiketan, Mambakoe kanpora jaurti eta elastiko moredun jokalaririk guztiek atezainaren gainera egin zuten salto, garaipena ospatzeko.

Sari-banaketan, kopa eta dominak ez ezik, ohiko errekonozimenduak ere izan ziren. Ligan gol gutxien jaso dituen atezainaren saria Inter FCko Emanuel Gonzalezek jaso zuen –hamabi gol kontratan–. Gol gehien sartu dituen jokalaria, berriz, Abdelmouamine El Batioui izan da, 27rekin. Kiroltasunaren saria –puntualtasuna, ekipamendua janztea eta zigor kopurua kontuan hartzen dituen– Kopako txapeldunordearentzat izan zen, Mamba Negrarentzat.



Inter FCko taldekideak, kopa eta dominak jaso berritan. EMANUEL GONZALEZ



Mamba Negra taldeko txapeldunordeak, Kopako finala jokatu aurretik. APFE

Aldarrikapenerako eta festaz gozatzeko hitzordua izango da zapatu honetan ospatuko den Gazte Eguna

Bihar, maiatzak 23, goizetik gauerako ekintza pila egongo dira plazan, Ermuko Gazte Mugimenduaren eskutik



Ermuko gazteria, plazako frontoian, iazko Gazte Egunean. G.E.

A.G.

Ermuko Gazte Egunak, jaiegun guztiek bezala, bazkaria izango du, baina, kasu honetan, eguneko lehen mokadua ere batera hartuko dute: 10:00etan, gosari autogestionatua egingo dute plazan. Ondoren, VIII. aldiaren murala margotuko dute bertan.

Artea eta sormena esploratuta, gogoetarako unea ailega-

tuko da: 11:15ean, Nü Shu Gazte Feministek antolatuta, *Feminismo zentzuduna, sareetako diskurtso erreakzionarioak desmuntatzen* hitzaldia egingo du Alex Sarduik; ondoren, 12:30ean, *Ermuko gazteondako espazioak: okupazioa, autogestioa eta gatzetxea* izenekoa hasiko da, Ernaireren eta Gazte Asanbladaren eskutik.

15:00etan, talde-argazkia atera eta gazte-bazkaria egingo dute tiketa erosi duten 110 lagunek. Bazkalostean, betiko kantak zein egungoak abestuko dituzte elkarrekin. 18:00etan, jolasen txanda izango da, Poteolinpiadetan; eta 20:00etan, bozgorailua hartu eta karro-poteoan ibiliko dira kalez kale. Gauean, plazara bueltatuko dira, Opilak eta Ga-

nibet taldeen elektronikarekin dantzatzera eta Aiama taldearen punkarekin garrasi egitera. Aurretik, ekitaldi nagusia egingo dute, 21:00etan: gazte mugimenduaren ibilbidearen errepasoa egingo dute eta euren aldarriak partekatuko dituzte; Gazte Egunaren leloak dioten bezala, *ez-tandak* borrokan harrapatuko du Ermuko gazteria.

Ahalduntze Eskolaren bazkarira batzeko azken eguna

Emakumeen Topalekuak Ermuko emakume guztiak gonbidatu ditu ekainaren 6an egingo duten bazkari musikatura batzera. 13:00etatik 17:00etara, Orbe Kardinala plaza solasaldirako, gozamenerako eta sareak ehuntzen jarraitzeko gune bihurtu nahi dute. Tiketak 10 euroan daude salgai, eta gaur, hilak 22, bukatuko da erosteko epea.



**TXINDURRI
TALDEA**
Tokian
tokiko



Baskoniako eta Gipuzkoako eta Bizkaiko federazioetako ordezkariak Ermuan izan ziren, zozketa solidarioaren kamiseta aurkezten. S.E

Baskonia, Gipuzkoa eta Bilbao Basket taldeak batu dira Saski Ermuaren ekintza solidarioa

Bildutako dirua Euskadiko Esklerosi Anizkoitzaren Fundaziora bideratuko dute

Ander Gomez

Ermuko Saskibaloia Eskola askotariko gaixotasunen ikerketan eta bestelako kausa solidarioetan laguntzeko proiektuetan murgiltzen da urtero. Oraingoan, esklerosi anizkoitzaren aurkako

borrokarekin bat egiteko ekimen berezia jarri du martxan. Bost urteko historiako talde txikia izan arren, hiru lurralde historikoetako talde nagusiak batzea lortu du, *Hiru talde, kausa bakarra* lelopean: Kosner Baskonia,

Inveready Gipuzkoa Basket eta Surne Bilbao Basket.

Proiektuaren ardatz nagusia kamiseta berezi baten zozketa izango da. Ermuko Irrikirri arropa markak sortu du, eta Igor Aizpiri markina-xemeinda-

rrak diseinatu. Hiru taldeen koloreak nahasten ditu eta 30. zenbakia darama, egun horretan izango baita Esklerosi Anizkoitzaren Nazioarteko Eguna. Baina garrantzitsuena –eta pieza hori errepikaezin egingo duenada jokalaria guztiek sinatuko dutela eta markoztatua entregatuko dela. Horrez gain, beste hiru kamiseta zozkatuko dituzte, taldeen elastiko ofizial bana.

Txartelak 2 euroan eskuratu daitezke, Zurich tabernan, Elegancias Bereber dendan eta Studio3e arkitektura-estudioan; eta Miribillako Bilbao Arena estadio alboko Saski kafetegian ere bai. Zozketa maiatzaren 30ean egingo dute, Esklerosi Anizkoitzaren Egunean, eta emaitza Saski Ermuaren sareetan eta *Barrena.eus*-en argitaratuko dute. 100.000 txartel daude, eta, salmenta "ondo" doala dioten arren, bi aste eskas falta diren honetan, ahalegintxo egin eta ekintzara batzera animatu nahi dituzte herritarrek: "Gustatuko litzai-guke txartel guztiak salduta ailegatzea hil bukaerara eta diru guztia Euskadiko Esklerosi Anizkoitzaren Fundazioari dohaintzan eman ahal izatea".

Ermuarrek bat egin dute minbiziaren kontrako borrokarekin Diru-bilketaren Egunean

Ermuko Minbiziaren Aurkako Elkarteak ia 1.900 euro bildu ditu herritarren ekarpenei esker

A.G.

Maiatzaren 14an, eguna, Diru-bilketaren Eguna ospatu zuten Bizkaian, minbiziaren ikerketa eta arreta gizatiarra sustatzeko hitzordu solidarioa. 45 udalerritako elkarteak batu ziren ekimenera. Ermuko elkarteko kideak zapatuan atera ziren kalera, herritar gehiagorengana hurbildu eta kontzientzia zabalatzeko helburuarekin.

Mahaia eta itsulapikoak jarri zituzten Orbe Kardinalean plazan, eta, *Gelditzen zarenean, minbiziaren aurka mugitzen gara* leloarekin, kaletik zihoazen ermuarrek egindako keinu horren balioa nabarmendu nahi zutelakontatu dute: "Gure mahai aurrean gelditzeak, entzuteak eta euren ekarpena egiteak mugimendu bat sortzen du: ikerketa sustatzen da, arreta hobetu eta itxaropena sortu". Goizean



Ermuko Minbiziaren Aurkako Elkarteko kideak eta laguntzera animatu ziren herritarrek, zapatuan, plazan jarritako mahaian. A.R.

zehar hogeit lagun inguru aritu ziren boluntario lanetan, eta, herritarrek egindako ekarpenei esker, 1.870,40 euro batzea lortu zuten; iaz baino 300 gehiago.

Baina Ermuak maiatzean egingo duen dohaintza ez da hor

geratuko. Datorren asteburuan Javi Alberdi Memorial Solidarioa izango da, eta, hirugarren aldi horretan, bildutako dirua Bizkaiko Minbiziaren Aurkako Elkartera bideratuko dute Artarrai Mendi Taldekoek. Ermu-

ko elkartekoek azaldu dutenez, egindako ekarpen bakoitza lagungarri izango da, eta gaixotasuna pairatzen duten pazientei eta euren senideei ematen zaien doako zainketa integralari eusteko bideratuko dute.


Euskadiko txapela jantzi du Hodei Rivasek, maila absolutuan

A.G.

Aurreko asteburuan, Euskadiko Gimnasia Erritmikoko Txapelketa jokatu zen Leioan, eta bertan izan zen Hodei Rivas gimnasta ermuarra. Hiru ariketa egin zituen: mazoekin eta uztaiarekin hirugarren geratu zen; pilotarekin, bigarren. Emaitza horiekin, gizonen urrezko domina lortu zuen 13 urteko gazteak.

Baina ez hori bakarrik; Olazarmendi klubekoek azaldu dutenez, parte-hartze handirik ez duten Euskadiko bezalako txapelketetan ez da gizonen eta emakumeen kategorien arteko bereizketarik egiten. Hala, Rivas maila handiko neska-mutilen aurka lehiatu zen. Guztien artean erregularraren eta akats gutxien egin zituena izan zen, eta Euskadiko txapeldun absolutu izendatu zuten.

Ekainaren 13tik 18ra bitartean Espainiako Absolutua jokatu du, aurrenekoz. Txapelketa jokatu bitartean beteko ditu 14 urteak, eta gimnasia erritmikoko banakako maila gorenean lehiatuko da. Olazarmendikoek "ilusio handiz eta egindako lanaren sari bezala" espero dute hitzordua, Zaldibarko klubarentzat ere lehen parte-hartzea izango baita maila horretako gizonen kategorian.



Rivas, podiumean jarrita. OLAZARMENDI

"Pololak inspiratuta eta ura botatzen duten bizilagunen ikuspegitik sortu dut kartela"

MARINA ORTEGA SANTIXAUETAKO KARTEL LEHIAKETAREN IRABAZLEA

Ander Gomez

Jai Batzordeak Marina Ortega del Burgo (Burgos, 1998) ilustratzailearen diseinua aukeratu du santixauetako irudi izateko.

Nola izan zenuen Ermuko kartel lehiaketaren berri?


Langabezian nago; diseinu grafiko lehiaketak begiratzen nabilela, Ermukoa agertu zitzaidan. Aurreko aldietan irabazi duten kartelak ikusi nituen, Udalaren hemerrotekako argazkiak... Festak atentzioa eman zidan.

Herri txikia da, baina festak, handiak.

Ez naiz sekula egon, baina hori dirudi. Bilbon bizi naiz, baina Burgoskoa naiz. Ez neukan ikusita Polola pertsonaia, eta asko gustatu zitzaidan. Gero, txupinazoa, jendea kalez kale, txarangen zapiak... guztia kartelean sartzen saiatu naiz. Balkoietatik botatzen zen ura bakarrik falta zitzaidan, baina, perspektibagatik, zaila zen irudikatzen.

Perspektiban irudikatzeak hautua nabarmendu dute epaimahaikideek.

Bai, eta hor dago uraren kontuaren gakoa. Ikuspegi kontrapikatu hori bizilagunena da, eta diseinatzerakoan neure burua ikusten nuen han, kalean jai-giroan zeudenei ura botatzen.



Marina Ortega del Burgo. MARIA MARTIN GIL

Minimalismoa nagusi den honetan, zergatik egin duzu kartel koloretsu baten aldeko hautua?

Kartelaren ideia Pololatik abiatu zen, eta, hain zuzen ere, paleta aukeratzekoan, dauzkan kolore guztiak hartu nituen. Kartela askotarikoa da, bai artistikoki, bai errepresentazio aldetik; alegia, adin, jatorri eta sexu askotariko herritarrek daude, Ermuko jaien balio nagusienetako bat aniztasuna dela ikusi nuelako.

100 kartel inguru aurkeztu dira eta zurea aukeratu dute.



Santixauetako kartela. MARINA ORTEGA

Ohorea da jendeari gustatu izana; batez ere, neu kanpokoia izanda. Oso pozik eta harro nago, ilusio handia egin dit.

600 euroko saria jasoko duzu, ez da sari makala...

Ez dago batere gaizki, ez. Aurreztu egingo dut; asko jota, eskapatatxo bat lagunekin, udan. **Eskapatatxo... Ermura?**

Beharko! Gainera, diseinatzeko prozesuan ikusi dut jaiak oso alaiak direla. Justu nire herrikoak aldi berean dira, baina, egun batean bada ere, pasatuko naiz bertatik, zalantza barik!



Emakumeak gailurretan ekimenera batu ziren Artarraiko emakumeak. DAVID ELEJALDE

Emakume ermuarrak Urko mendiko tontorrera igo ziren zapatuan

Maiatzaren 16rako, zapatua, emakume bizkaitarrak euren inguruko tontorretan elkartera deitu zituen Mendizale Federazioak, *Emakumeak gailurretan* izeneko ekimenean. Ehun mendi igo zituzten, eta, ofizialki 1.950 lagunek izena eman bazuten ere, egunean bertan bi milatik gora izan ziren. Eguerdian elkartu ziren tontorretan, eta sare sozialetan partekatu zuten unea, emakumeek mendian duten lekua aldarrikatzeko.

Urko igotzera bederatziz zeuden inskribatuta, eta beste lau batu ziren, azkenean. Artarrai Mendi Taldeak deituta, 10:30ean atera ziren plazatik. Bidean zerua hodeitsu izan zuten, baina,

tontorrera ailegatu eta sareetarako bideoa grabatzeko orduan, kukutxo egin zien eguzkiak.

Argazkian daude, ezkerretik eskumara: Jenifer, Idoia eta Bea Izarra, Gloria eta Encarni Muñoz, Marialui Perez, Laura Cid, Nerea Berriozabal, Paqui eta Sonia Holguin, Ione Ortega, Olatz Saigarduy eta Lara Martinez.

Oiz mendira egindako igoerak ere izan ziren. Kasu horretan, Mallabiaz gain, Bizkaiko beste hainbat herrirekin muga egiten duenez, leku askotako emakumeek zuten hitzordua bertako tontorrean. Deialdi nagusia Berriko Amaraune Mendi Taldeak egin zuen eta hogeitaz gutxiago gora batzea lortu zuten.

Ermuko irakasleak, IRALEren murgiltze ikastaroak mantentzearen alde



ONGARAI-ANAITASUNA IKASTOLA

Urteetan, IRALE (Irakasleen Alfabetatze eta Euskalduntze Programa) lagungarri izan zaie Ermuko irakasle askori, ikastetxe guztietakoei: Eskolabarri, Ongarai, Anaitasuna, San Lorenzo eta San Pelayo. Hezkuntza Sailak IRALEren R ikastaroak –irakasleen euskara hobekuntza aurreratua lortzea helburu duten murgiltze ikastaro in-

tentsiboak– bertan behera uzteko hartu duen erabakiaren harira, sindikatuek mobilizatzea deitu zituzten irakasleak joan den aste-rako. Debabarreneko ehun irakasletik gora batu ziren deialdira; tartean, Eibarko San Andres eskolakoak, Soralueko institutukoak, eta Mutrikuko, Mendaroko eta Ermuko ikastoleakoak.

Psikomotrizitatea lantzeko umeentzako saioak irailetik aurrera

2026-2027ko ikasturtean, mugimenduaren bidez adierazpena, harremanak eta garapen pertsonala lantzeko psikomotrizitate tailerra emango dute Ermuan. San Lorenzo eskolan izango da eta Alboan Psikoguneko profesionalek gidatuko dute, hezkuntza eta prebentzio arloan esperientzia duten adituek. Saioak San Lorenzon izango diren arren, edozein ikastetxetako umeek parte hartu dezaketela azpimarratu dute, HH eta LH4 artekoak. Saioak astean behin izango dira, arratsaldean.

Maiatzaren 27an, eguaztena, informazio-saio irekia egingo dute San Lorenzo eskolako liburutegian, 16:15ean.

400 lagunetik gora ibiliko dira Oiz eta Arietzu mendien artean, bihar, 7 Pago lasterketan

Mallabiko lasterketaren III. aldia izango da; bigarrena Durangaldeko Koparen baitan

Ander Gomez

Dorsal guztiak agortuta ailegatuko da 7 Pago mendi-lasterketaren eguna: maiatzaren 23a, zapatua. Berrehun lasterkari batu dira 25 kilometro eta 1.400 metroko desnibel positibodun ibilbide luzera; eta 16 kilometro eta 750 metroko desnibel positibodun laburrean berrehun eta hogeita bost parte-hartzaile izango dira –iaz baino 75 gehiago–. Dorsalak Kontzejuzarrean eskuratu ahal izango dira: gaur, barikua, 18:30etik 20:00etara; edo bihar, lasterketa hasi aurretik, 08:00etatik 09:30era.

Mallabitarrez gain, Debabarreneko beste herrietako lasterkariak ere inskribatu dira: 102 Ermutik, hogeitazazpi Elgoibartik, hiruna Deba eta Mutrikitik eta bana Mendaro eta Soralezetik.

Mari eta Sugaar kopak

Guztiak Durangaldeko mendi-lasterketak batzen dituen txapelketara batuko dira, aurrekoetan bezala, Durangaldeko Koparen lehen hitzordua izango da eta. Hurrengoak ekainetik urrira bitartean izan-



Saltoka Zengotitagainen, iaz. XABIER AGIRRE

go dira: Amaraune (Berriz), Zaldu Trail (Zaldibar), Asto Trail (Garai) Mañaritik Atxetara (Mañaria), Sorginen Lasterketa (Atxondo), Aramotz (Zornotza) eta Aldapegora (Elo-rrio).

Ibilbide luzeak barne hartzen dituen Mari kopak 500, 400, 300, 200 eta 100 euro banatuko ditu saritan. Ibilbide laburren Sugaar kopak, berriz, 250, 200, 150, 100 eta 50 euro. Orain arte, ibilbide luzea bakarrik izan da lehiakorra 7 Pagon; aurten, laburra ere izango da puntuagarri.

Sariak, opariak eta zozketa

Baina Mallabiko lasterketara soilik aurkezten direnek ere sari potoloa irabaz dezakete, aurreko aldietako marka ofizialak hobetuz gero. Ibilbide laburrean, emakumezkoen marka Garazi Sampetro atxondoarrarena da (1:40:27); eta gizonezkoena, Xuban Muniozguren markina-xemeindarrarena (1:22:08). Ibilbide luzean, emakumezkoen errekorra Nora Narbaiza zaldibartarrak dauka (2:51:41); eta gizonezkoena, Irazu Aranburu mallabitarrek (2:16:48). Horietako bat hausten duen lasterkari bakoitzak 100 euroko diru-saria jasoko du.

Aisialdirako parte hartzen dutenek ere opari ederra eraman dezakete etxera: bizikleta bat zozkatuko dute Orbearen eskutik: Alma M50 modelo.

Edozein modutan, guztiak izango dituzte oparixoa dortsalarekin batera jasoko duten lasterkariaren poltsan: kamiseta, Orbearen txapela, Mañeko pastelak, Lizagazarreko zukua... eta, lasterketa luzekoek, Lurbe- len galtzerdi batzuk ere bai.

Egun osoko egitaraua

Sari-banaketaren ostean, Elektrotxufla elektrotxaranga gi-

rotuko ditu bazkalorduren aurretiko uneak. Aurten ez da talo-posturik egongo. Horren ordez, "mailaz igo" eta oilasko-parrillak jarriko dituztela aurreratu dute antolatzaileek; sagardoa ere eskainiko dute. Arratsaldean, Lasterketa Txikia egongo da umeentzat, eta garagardo dastaketa nagusientzat. Bukatzeko, Imanol Epelderen *Zerbait sartu zait begian* bakarrik egongo da. Antolatzaileek kirolaz aparteko ekintza kulturala ekarri nahi zuten herrira. Adierazi dutenez, musika, irudiak eta umorea uztartuko ditu, eta euskaraz, bizimoduaren abiaduraz, maskulinitateaz eta naturarekiko deskonexioaz hausnartzeko "performance poetiko bat" izango da.

Ordutegia

09:30 Lasterketa luzea
10:00 Lasterketa laburra
13:30 Sari-banaketa
13:30 Elektrotxufla elektrotxaranga
14:00 Oilasko-pintxoak parrillan eta sagardoa
16:00 Umeen lasterketa
17:30 Garagardo dastaketa, probalekuan
19:00 *Zerbait sartu zait begian* ikuskizuna, Imanol Epelderen eskutik

Dokumentazioa berritzeko bulego ibiltaria Mallabira ailegatuko da martitzenean

A.G.

Nortasun agiria eta pasaporte tramitatze bulego ibiltariak Ermuan egin zuen lehen geldu- nea, iazko apirilean. Aurkezpen- ean Marisol Garmendia Belokik –Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkaria– azaldu zuenez, dokumentazio pertsonala "kalean bertan modu eroso eta eraginkorrean" tramitatzeko ahalbidetzen du, eta "Estatuko Administrazio Orokorren hurbiltasuna indartuko du Euskadin". Aurten, Debabarreneko herri gehiago bisitatu ditu: Deba, Elgoibar, Soraluze... eta Mallabitik pasatuko da orain.

Espainiako Poliziaren furgonia da bulego ibiltaria, eta pilotaleku parean egongo da hilaren 26an, martitzena, eta 27an, eguaztena. Goizez bakarrik emango du zerbitzua, 09:00etatik 13:30etara, eta nortasun agiria eta pasaporte berritzeko eta nortasun agiriaren ziurtagiri elektronikoak eguneratzeko aukera emango du.

Udalak gogorazi du txanda eskatzea derrigorri dela, eta interesa dutenek udal bulego- tan edo 943 17 14 61 telefonora deituta egin dezaketela.

Eskolako umeak dantzan batu dira LGTBIQ+fobiaren kontrako Egunera

Maiatzaren 17an, domeka, lesbiana, gay, bisexual, trans, intersexual, asexual, queer eta bestelako identitate edo orientazioen kontrako diskriminazioa eta indarkeria salatzen nazioarteko eguna ospatu zen. Astelehenean, berdintasuna eta eskubideak aldarrikatzeko ekitaldi berezia egin zuten Leurreta-Markina ikasleek. Mailaz maila, kolore banaz jantzita joan ziren eskolara, eta, LGTBIQ+ bandera irudikatuz, Bulego taldearen *Entera daitezela* kantua dantzatu zuten, "aske izateko jaiok garel" ozen kantatuz.



LEURRETA-MARKINA ESKOLA

Bi astean bete egin dira danborradako barril- eta danbor-jotzaileen konpainiak

Antolatzaileek esan dutenez, gremioen konpainietan badago lekua oraindik



Herritar bat danborradaren izen-emate orriarekin, Iratxo goxo-dendaren kanpoan.

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Jaietako danborradaren antolatzaileek jakinarazi dutenez, dagoeneko ez dago lekurik danbor- eta barril-jotzaileen konpainietan izena emateko, izen-ematea iragarri eta apenas bi astean bete egin baitira leku guztiak. "Norbaiz izena eman gabe badago, gurekin kontaktuan jar dadila, ea zerbait egin dezakegun", esan dute.

Gremioak eta zaldunak

Edozein modutan, oraindik izen-ematea zabalik dago, adibidez, gremioen konpainietarako; beraz, "horretan izena eman ahal izango da". Eta oraindik izena eman daiteke, baita ere, zaldun joateko, erabaki barik baitago zeintzuek desfilatuko duten kantinera zaldi gainean.

Erabakita dago, ordea, konpainien zuzendariak zeintzuk izango diren.

Izena eman daiteke Iratxo goxo-dendan eta Bolia tabernan dauden eskuorriak beteta edo sare sozialetan zein kalean ipini duten QR kodea eskaneatuta. Parte hartzeko gutxienezko adina 14 urte da; kanoien eta zaldi-gaineko kantinaren kasuan, 18 urte.

"Gazte asko"

Emandako xehetasunen arabera, inoiz baino bizkorrago joan da izen-ematea: "Aurreko urteetako jende kopuruak eman du izena, baina aurten oso bizkor joan da. Bi astean leku gabe

geratu gara". Iaz, adibidez, maiatzaren 30ean gainditu zen 100 izen-emateen langa, eta aurten dagoeneko pasatu dute hori.

Halaber, esan dute jende berria animatu dela parte hartzera: "Danborradan beti izaten direnez aparte, aurten gazte askok eman dute izena; gehienak, danborrak edo barrilak jotzeko".

Konpainia gehiago aztergai

Iazko danborradan 220 bat lagunek parte hartu zuten, horietatik 45 inguru izan ziren musikariak, eta 159 herritarrek

desfilatu zuten. Desfilatu zuten artetik 54 izan ziren barril-jotzaileak eta 46, berriz, danbor-joleak.

Guztira, zortzi konpainia osatu zituzten: *Mikeleteak*, *Kantinerak*, *Agintariak*, *Arrantzaleak*, *Gudari urdinak* -danborrekin-, *Gudari gorriak* -barrilekin-, *Gozogileak* -danborrekin-, *Sukaldariak* -barrilekin-, *Sukaldariak* -ez dutenak jotzen-, *Aparejeruak*, *Ehiztariak* eta *Kanonistak*.

Aurtengo erantzuna ikusita, antolatzaileek ez dute baztertzeko

"Beti izaten direnez aparte, jende gazte askok eman du izena"

ANTOLATZAILE TALDEA

Aldaketarik ez bada, ekainaren 25ean hasiko dira danborradaren entseguak

konpainia gehiago sortzea, baina hori aurrerago egingo dutela adierazi dute: "Konpainiak gehitzeko aukera badago, baina hori taldeak antolatzen direnean ikusten joango gara. Eta konpainiena, momentuz, ez dugu antolatu. Aurrerago antolatuko dira, pertsona gehienek ematen dutenean izena".

Barril eta danbor falta

Edozein ere, barril- edo danbor-jole konpainiak ugaritzea zail ikusten dute, herrian ez daudelako danbor zein barril gehiago, eta, ondorioz, eskatu edo alokatu egin beharko lituzkete. Eskopetak, adibidez, Elgoibarko danborradakoei alokatzen dizkiete.

Entseguak, ekainaren amaieran

Osterantzean, jakinarazi dute ekainaren amaiera aldera hasiko dituztela entseguak, aldatetarik ez bada: ekainaren 25ean. Frontoian elkartuko dira entseguetarako, 19:30etik 20:30era bitartean. Eta uztailean hasiko dira, berriz, jantziak banatzen.

Danborradan joko dituzten piezei dagokionez, berriz, kasu horretan ez da berritasunik izango, iazko berberak joko baitituzte; tartean, iaz estreinatutako Domentx Uzin musikari soraluzetarrak konposatutako *Atxolin* pieza.

Hori horrela, honako pieza hauek joko dituzte: Donostiako danborradako lau pieza -*Martxa*, *Diana*, *Tatiago* eta *Iriyarena*-; *Debako Martxa*; *Pantxika* Eibarko pieza; *Txokolo* Azpeitikoa; *Artillero* Tolosakoa; eta Soraluzeko hiru kanta -*Se-kula ere*, *Zezenak dira* eta, esandako moduan, *Atxolin* kalejira, danborradan jotzeko "martxa" bihurtuta-.

Datorren barikuan, maiatzaren 29an, odol ateratzeak

Soraluzeko Odol Emaileen Elkarteak gogora ekarri du datorren barikuan, maiatzaren 29an, etorriko direla Euskadiko Odol Emaileen Elkartekoak.

Bariku horretan 16:30etik 20:30ak arte izango da odola emateko tartea, Itxaropena Erretiratuen Elkartean. Txandak, berriz, maiatzaren 27an, eguaztena, eta 28an, eguena, hartu ahal izango dira, Internetez, *Gotatanta.eus* atarian. Eta bestela, barikuan bertan, goizez, honako telefono zenbaki honetara deituta: 943 00 78 85.

Aste honetako datuen arabera, odol-mota hauen behar handia dago: O-, A-, B- eta AB-; eta premia ertaina, berriz, O+ eta A+ motetan.

Odola eman dezakete 18 eta 70 urte arteko pertsonak -65 urte, lehenengo aldiz balitz-, 50 kilo baino gehiago pisatzen dutenak eta osasuntsu daudenak. Emakumeek urtean hiru aldiz eman dezakete, eta gizonek, asko jota, lau aldiz.

Udan, arratsaldeetan itxita egongo da okindegia

Mendizabal okindegiak udako ordutegia izango du ekainean eta uztailean. Astelehenetik barikuetara 08:00etatik 13:00ak arte zabalduko dute saltokia eta arratsaldeetan itxita egongo da. Zapatuetan, berriz, 08:30ean zabaldu eta 13:30ak arte egongo da zabalik. Orain arte moduan, domeketan eta jaiegunetan itxita izango da.

Elektrizitatea
Iturgintza
Igeltseritza
Pintura

EXGA S.L. 679 623 584 Soraluze

MABEL
INBEPAINDEGIA

- Laser depilazioa
- Keratina tratamendua
- Solariuma

Errabai 1
Tel.: 943 75 14 89

Barrena
DEBARRRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Jarri esana zure publicitateari
BARRENA astekarian
edo
www.barrena.eus
webguztuan

943 743 704
688 769 657

SORALUZE MOTOR
Mendiola Ind. 13 Soraluze

474 554 817 - 943 75 21 38

itv

ODRI
ATEAK ETA LEIHOAK

Mota guztietako leihoak, pertsiarrek, atsek, burandilak salmenta eta konponketa

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

T. 062 234 609
Sagar Etxea Kalea 2 - 30900 SORALUZE
e-mail: odri@odrihoak@gmail.com

laibi²⁵
urte

Mendiola Industrialdea 13 Soraluze

Tel. 943 75 12 69
www.laibi.net

Terraza, kontzertuak, dardoak...

Asigor Fabrika

Ostiraletan pintxopotea

Gipuzkoa etorbidea 1

Plaza Zaharreko harmailak lekuaren neurrira aurrefabrikatuko dituzte

Zimentazio-lanak egiten ari dira; horiek amaitutakoan ipiniko dituzte harmailak

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Asteotan, Plaza Zaharreko harmailak eraikitzeke obretan zimentazio-lanak egiten ari dira Lurkide enpresako langileak. Obraburuak azaldu duenez, plazatik ibai-ondora jaitsiko diren harmailen behealdea ari dira egokitzen eta eraikitzen. Besteak beste, hiru zutabe, pareta eta zolarria eraiki behar dituzte. Eta zolarria egin baino lehen, haren azpitik urendako drainatze-tutuak sartu behar dituzte.

Edozein modutan, aurrera doaz obrak, eta, zimentazio-lanak bukatu eta gero, "harmailen muntaia izango da hurrengo pauso ikusgarriena, harmailak aurrefabrikatuta etorriko baitira eta garabien bitartez kokatuko baitituzte", esplikatu du Unai Larreategi Azurmendi alkateak.

Neurrira eginda

Harmailen harira, Lur Etxeberria Gurrutxaga Soralezeko Udaleko aparejadoreak jakinarazi duenez, "harmailak hormigoizkoak izango dira, eta metro zabal eta 50 zentimetro garai. Zimentazioa bukatu eta gero neurri zehatzekin fabrikatzen hasiko dira; beraz, oraindik ez dira fabrikatzen hasi. Neurtzen eta fabrikatzen, gutxi gorabehera, sei aste igaroko dituzte". Hori bai, azken horren harira, hark gogora ekarri du epea aldakorra izan daitekeela, hornitzaileak eta eguraldiak eragina izan baitezakete horren guztiaren garapenean.


Miradorea ere bai

Udaleko aparejadoreak emandako xehetasunen arabera, "harmailen azpian egurrezko oholtza bat egongo da, ibaiaren ondoan. Horrekin batera, Batzokiaren aldamenean egurrezko beste eremu bat egongo da, plazaren kota berean, harmailak jaitsi ezin dituenak miradore moduko bat izan dezan".

Bestela esanda, eta planoaren arabera, harmailak egurrez inguratuta izango dira, aurretik, ibai aldetik zein Batzokiaren aldetik.



Langilea lanean, atzo, eguena. U.M.Z.



Harmailen proiektuaren plano. SORALUZeko UDALA

Pareta babestu beharra

Plaza Zaharreko harmailaren obra urtarrilaren 12an hasi zuten. Soralezeko Udalak azaldu zuenez, "proiektu berriak herria ibaira gerturatu eta harekin are gehiago konektatuko du; horretaz gain, lotura zuzena du ibaiaren herri paisaiako elementu garrantzitsu gisa definitzen duen prozesuarekin".

Lehenengo, bertan zegoen aroztegi zaharra eraitsi zuten. Eta, ondoren, harmailendako esparrua egokitzeke obrak hasi zituzten.

Egurrezko oholtza bat egongo da ibaiaren ondoan, eta beste eremu bat, plazaren kota berean

Obrak adjudikatu zireneko aurreikuspena zen bost hilabetean bukatuko zirela. Baina lanean geldialdia izan zuten. Izan ere, pareta bat topatu zuten lurrrak hondeatzen ari zirela, eta, protokoloari jarraiki, obrak gelditu eta Gipuzkoako Foru Aldundian eman zuten haren berri. Martxoan, Diputazioak bidalita, Arkeolan enpresako aditu bat izan zen pareta ikusten eta aztertzen. Udalerriaren erdigune osoa bezala, esparru hura ere babestuta dago; beraz, pareta ere babestuta laga beharra zegoela erdietsi zuten. Diputazioak, ebazpenez, Soralezeko Udalarri obrek aurrera segitzeko baimena eman zion, pareta ez eraisteko baldintzarekin. Hori betetzeko, bere horretan gorde dute pareta, berriro ere lurpean, eta ez da argitu zeren edo nongo pareta izan litekeen.

"Zaila" izan arren, "topera" saiatuko da Soriano Espainiako txapelketan

Maitzaren 29an eta 30ean jokatuko dute Espainiako Izokinkideen Lance Arrantza Txapelketa

U.M.Z. SORALUZE

Datorren egunean, maiatzak 28, hasiko da Espainiako Izokinkideen Lance Arrantza Txapelketa, Leonen, eta bertan izango da Denis Soriano soralezetarra, bakarka zein euskal selekzioarekin lehiatzeko gertu.

Txapelketaren lehen egunean, lehiakideak elkartu, informazioa jaso eta, besteak beste, hurrengo egunean hasiko den txapelketarako arrantza-tarteak banatu ditzkiete.

Arrantza txapelketa bera maiatzaren 29an hasi eta zapatuan bukatuko da. Arrantzaleek goizez zein arratsalde jardungo dute Leongo Orbigo ibaian arrantzan, bi orduko saioak egingo dituzte, eta jarraian kontrolak izango dituzte.

Ur asko

Txapelketa prestatzeko, Denis Soriano joan den asteburuan izan zen Orbigo ibaiaren egoera ikusten eta arrantzan. Gero, lehiaketaren egunean bertan ere goizez egingo du azken praktikaldia bertan.

Kontatu duenez, "ur askorekin eta hotza" topatu du ibai. Gaineratu du arrainek "mo-



Amuarrain bat sarean, Leonen. SORIANO

mentuka" amua irensten zutela eta arrantzatut zuela "espero baino hobeto". Uste du lehiaketa egunerako ur kopurua apurtxo bat jaitsita egongo den arren "altutxo" harrapatuko dutela ibaia, eta ur asko egoteak baldintzatu egin dezakeela emaitza. Edozelan ere, gaineratu du "zaila" izango den arren baduela "gogoa", eta "dena ematen" saiatuko dela.

Iaz, bakarka, bosgarren postua eskuratu zuen Sorianok, eta David Iglesiasekin bikote eginda, berriz, hirugarrena.

Costa Bravan bost egunez



ALBERTO ARIZAGA

Gaur, barikua, bueltatuko dira Itzaropena Erretiratuen Elkar-tearen eskutik Costa Bravan egonaldia egin duten lagunak. 37 pertsona joan dira, 35 Soralezekoak eta bikote debatar bat; izan ere, lekua zegoenez, kanpotarrei ere aukera eman diete soralezetarrekin bidaian joateko. Bost egun egin dituzte Costa Bravan, eta, batik bat, inguruak bisitatzeko txangoak egin dituzte, baita itsasontziz ere.

Hockeyko neskek Euskadiko Kopako finalerdia jokatu dute ekainean

Benjaminen domekan bukatuko dute liga, Aranen, eta alebinez, ekainean

Ubane Madera Zangitu SORALUZE
Marras Irristaketa Taldeko ekipok 2025-2026ko denboraldiko azken partidak jokatu dituzte asteotan.

Etzi, domeka, benjaminen txanda izango da. Haiek etxean bukatuko dute liga, egun oso iraungo duen hockey topaketan. 09:30ean jokatu dute lehen partidua, eta 17:30ean azkena, Araneko frontoian; bederatzik norgehiagoka izango dira.

Marraseko benjaminen bi partidu jokatu dituzte: 12:30ean Bilboko Metropolitan taldearen kontra eta 16:30ean Muskerrak Arabako taldearen kontra.

Bestalde, Marraseko alebinez ekainaren hasieran jokatu dute ligako azken partida, baina oraindik ez dute zehaztu jokalekua zein izango den. Azken hitzordua, adibidez, Soraluze izan zuten.

Aurkari zaila Kopan

Azkenik, MIK Marras taldeko neskek ere ekainean bukatuko denboraldia. Haien kasuan, ekainaren 30ean bukatuko dute liga, goiko postuetan bukatu ere; hirugarren postua ziurtatuta dute, eta bigarren postua eskuratzeko aukera ere badute.

Baina, gainera, liga bukatu aurretik, beste hitzordu garrantzitsu bat izango dute: Euskadiko Kopako finalerdia. Ekainaren 13an jokatu dute –oraindik ez dakite non–, eta, irabaziz gero, hurrengo egunean bertan jokatu dute finala. Hori bai, ez dute erraza izango finalerako sailkatzea, aurkaririk "zailena" tokatu baitzaie finalerdirako: Gasteizko Sumendi taldea.

Edozein modutan, galdu edo irabazi, bai kirol-emaizta aldetik eta baita bestela ere, "oso pozik" dira aurtengo denboraldiarekin.

2025-2026an, Marraseko neskek Aguraingo hockey jokalariekin osatu dute taldea, biak herri txikiak izanik elkarlana ezinbesteko. Herri bakoitzeko seina hockey jokari diote taldeari eta "oso-oso modu positiboan" baloratu dute emaitza. "Demaseko giro ona" izan dute "bai jokalarien zein gurasoen artean". Kirol arloan, berriz, oreka handia izan da ligako taldeen artean, eta, partiduak parekatuago izanda, gusturago ibili dira.

Marras Irristaketa Taldeko gainerako taldeen balorazioari dagokionez, alebinez "kirol mailan oso emaitza onak" lortu dituzte, eta, benjaminen kasuan, berriz, aurten talde berria osatu dute eta "oso-oso gustura eta pozik" daude: "Zortzi bat dira ekipoan, zortzitik sei aurten hasi dira, eta oso pozik daude".



MIK Marras hockey taldea. MARRAS IRRISTAKETA TALDEA



Marraseko benjaminak. MARRAS

Mikel Recio Irustak laga egin du waterpoloa, 18 urtez jokalaria izan ondoren

Eibarko Urbat ekipoko kapitainak maiatzaren 8an jokatu zuen azken partidua

U.M.Z. SORALUZE

"Hunkigarria eta polita" izan zen Mikel Recioen waterpoloko azken partidua. Eibarko Urbat taldeko kapitainak maiatzaren 8an, etxean, Donostian jokatu zuen, haren ekipo ohi Portugaleteren kontra. Urbatek mailari eustea zuen jokoan, eta lortu zuen, 12-7 irabazita; Recio gol bat sartu zuen, eta, gainera, MVP-jokalaririk onena izendatu zuten: "Tongoa izan zen [Barre]; denok ezagutzen dugu elkar, bazekiten waterpoloa laga behar nuela, eta nahita eman zidaten".

Edozelan ere, kirol-ikuspuntetik harago, jasotako babesak hunkitu egin zuen Recio: "Zerbait espero nuen, baina 25 bat lagun etorri ziren, beste 5-6 familiakoak, eta han zeuden ere taldekide ohiak. Gai izan nintzen kontzentratzeko, jaitsiera zegoen jokoan; amaitutakoan, denak etorri ziren besar-



Mikel Recio, lagunek egindako pankartaren aurrean, azken partiduan. RECIO

katzera, zoriontzera... Uretatik irten nintzenez, hunkitu egin nintzen". Lore-sorta, 3. zenbakidun gorroa koadroan eta argazkiak oparitu zizkioten, eta elkarrekin afaldu zuten.

Eibar, Portugalete, Katalunia...

Recio Soraluze hasi zen igeriketan. 12 urterekin Eibarko igerilari-taldean hasi zen gero, baina, bakarka lehiatzea gustuko ez, eta urtebetara water-

poloko Urbateko seniorrekin entrenatzen hasi zen. Harrezkero, ibilbide oparoa egin du, erdiprosional mailan ia dena: "Urbateko nire bigarren urtean Italiatik etorritako Davide entrenatzailearekin hasi, eta lehen urtera euskal selekzioetik deitu ninduten, infantiletan. Bigarren urtean, astebetzez Espainiako Selekzioarekin entrenatu nintzen, Goi-errendimenduko Zentroan. Urte batzuetan lau mailatan jokatu nuen: infantil, kadete, gazte eta seniorretan. Gero, seniorretan bakarrik". Urbatekin Euskal Herriko Lehen Mailara igo zen, eta Liga Katalanean ere jokatu zuen, 2019an Urbatera itzuli zen arte. "Urbatekin Kopa, ligaren bat... irabazi genituen, eta urtero jokatzeko genuen igotzeko, 2023an Bigarren Nazional Mailara igotzea lortu genuen arte". Waterpoloa lagatzeko erabakia, berriz, iaz hartu zuen; astebost entrenamendu, astebururo partiduak Estatuan... Goia jota zegoen, baina Urbat talde gaztea zela eta eutsi egin dio. Orain, taldea goian lagata, deskantsurako bidea hartuko du Recio.



Recio, baloia jokatzen. RECIO



Recio, eskerrak ematen. RECIO



Margolari bat, Plaza Zaharrean, iaz. EGOITZ UNAMUNO LOIDI



Marietak Zirkus. ZIRIKA ZIRKUS



Umeen margolanekin egindako erakusketa, iaz. EGOITZ UNAMUNO LOIDI

Kaleko Margo Lehiaketako sarietako bat herritarrek aukeratuko dute, bozketa bidez

Umeendako eta helduendako lehiaketak dira; sariak 18:00etan banatuko dituzte

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Domekan, herriko plazak eta txokoak margolariz beteko dira, Kaleko Margo Lehiaketaren 32. edizioak erakarrita. 09:00etatik 10:00ak arte helduen lehiaketako izen-ematea egingo dute. 16 urtetik gorakoek parte har dezakete eta 14:00ak arte izango dute margolanak egiteko. Horrekin batera, haurrei eta gazteei zuzendutako lehiaketa ere izango da, 10:30etik 12:30era.

Erakusketa domekan

Helduen margo lehiaketari dagokionez, berritasunekin dator.

Batetik, "iaz parte-hartzaileekin adostuta", lehiaketako margolanekin egin ohi den erakusketa egunean bertan egingo dute, kalean. Maite Quintanilla Kultura zinegotziak esplikatu duenez, "artistak zaindu eta haiei erraztasunak ematearekin batera, kulturaren kaleko presentzia indartze aldera" erabaki dute hori. Plaza Barrixan izango da –euria bada, elizpean–, 14:00etatik 18:00etara. Bestetik, margolari helduak kanpotik datozela aintzat hartuta, bazkaria eta frontoian aparkalekua egokituko diete.

Helduetan, herritarren saria

Eta, hirugarrenik, erakusketa "indartzeko eta jendea ikustera animatzeko", laugarren sari bat gehitu diote lehiaketari, herritarrena, bozketa bidez erabakitzeko. Erakusketak iraun bitartean eman ahalko du botoa edozeinek, baita umeek ere. "Denok dugu arteaz iritzia emateko eta gozatzeko gaitasuna", Quintanillaren esanetan. Botoa emateko txartel batzuk egongo dira, datuak bete eta zerbakituta izango diren artelan gustukoaren zerbakia jarrita bozkatuko da; herritar

bakoitzeko boto bat. Erakusketa eta bozketa ikasbidaiakoek zainduko dute. Boto gehien jasotzen duen margolanak, berriz, bertako produktuekin osatutako saskia jasoko du opari.

Gainerako hiru sariei dagokionez, epaimahaia erabakiko ditu. Epaimahaia osatuko dute Maria Luisa Blasco margolari eta idazleak, Paula Pinilla Krabelin pintura eskolako irakasleak, Laura de Luis Arte Ederretan lizentziadunak eta kontserbazio eta zaharberritzeetan adituak eta Pedro Etxaniz margolari eta eskulturgileak. Lehen saria 600 euro izango dira, bigarrena 400 euro eta hirugarrena 300 euro.

Umeen eta gazteen lehiaketa

Umeen eta gazteen lehiaketari dagokionez, berriz, HHTik DBH-rainoko 16 urtez azpikoek parte har dezakete. Plaza Zaharrean

–euria bada, SAPAn– banatuko diete materiala, eta kartulinak zigilatu –12:15ean banatuko dute azken materiala–. Dena den, nahi duenak etxetik ere eraman dezake materiala. Maila bakoitzeko sari bana emango dute, Iratxon, Estankotan eta Arcelusen erabiltzeko kultura-bonuak, eta partaide guztiei litxarreriak emango dizkiete.

Sari banaketa ekitaldia, helduena zein umeena, domekan 18:00etan egingo dute, Plaza Barrixan –euria bada, elizpean–.

Topaketa borobiltzeko, zirkua

Margolarien topaketa borobiltzeko, eta iazko "harrera ona" ikusita, zirkua izango da –euria bada, SAPAn–, Zirika Zirkus konpainiaren eskutik. Umeen lehiaketa bukatu eta berehala egingo dute *Marietak Zirkus* ikuskizuna, "publiko guztientzat" aproposa.

Familiak euskarazko ekimenetan, Eusferaren baitan

Jolasa, euskara eta familiak erdigunean jarrita jardun dute Eusfera ekimenaren baitan antolatutako ekintzetan hamar egunez. Sukaldaritza, jolas herrikoiak, jolas kooperatibo berriak, kantuz egiten diren aspaldiko esku-jolasak, atzamar-jolasak, al-tzo-jolasak, korro-jolasak eta sendabelarrekiko ezagutza izan dituzte ardatz. Saioen osteko balorazio informalk kontuan hartuta, ekintzok arrakastaz eta helburuak sobera beteta bete direla adierazi dute.



ARIANNE UNAMUNO

Literatura solasaldia eta bertso-saio literarioa Amurizarekin

Datorren astean, Miren Amuriza bertsolaria eta idazlea birritan izango da Soraluzean. Astelehenean, maiatzaren 25en, Euskarazko Irakurle Klubean parte hartuko du. Ainhoa Aldazabalek gidatutako taldeak Amurizaren *Pleibak* liburua izango du langai. Irakurketa kluba 19:00etan elkartuko da, Udal Liburutegian, eta interesa duen edozeinek parte har dezake.

Horrez gain, zapatuan, hilaren 31n, bertso-saio literarioa izango da, Itzaropena Erretiratuen Elkarteko tabernan. 13:00etan hasiko da eta parte hartuko dute Miren Amurizak berak eta Julio Sotok, Paule Bilbao *Arima*-k eta Uxue Alberdik.



Sokamuturrean, zezentxo batek gazte bat harrapatu zuen unea. N.B.A.



Erraldoien kalejira. N.B.A.



Gure Kai dantza taldeko kide bat, aurrekua dantzatzen, Foruen plazan. N.B.A.



Gurdiekin egindako entzierro txikia. N.B.A.



Mikel Goñi, sakea egiten. N.B.A.



33. Haurren Margo Lehiaketetako saridunak. HAITZ-HAUNDI ELKARTE ARTISTIKOIA

Urteroko ohiturei eutsiz eta festa-giro ederrean ospatu dute Debarren Eguna

Herritarren parte-hartze handia izan da, adin guztietarako ekintzek osatua

Nerea Bedialauneta Alkorta

Egun nagusia maiatzaren 17a, igandea, izan zen arren, aurten ere asteburu osoko egitarau zabala izan du Debarren Eguna. Herria festa-giroan murgilduta egon da hainbat egunetan, eta

Debako kale eta plazak jendez bete dira; ohitura zaharrak eta ospakizun berriak eskutik helduta doazela erakutsi dute.

Jarduerak aurreko asteazkenean –maiatzak 13– hasi ziren, *Suharra* dokumentalaren proiektuarekin eta solasaldiarekin, eta ostiralean jarraitu zuten, paella lehiaketarekin, Kanean Kantuzen saio ibiltariarekin eta bandaren emanaldiarekin.

Debarren Egunaren bezperan –maiatzak 16– eguraldi goibelak

zioarekin eta solasaldiarekin, eta ostiralean jarraitu zuten, paella lehiaketarekin, Kanean Kantuzen saio ibiltariarekin eta bandaren emanaldiarekin.

ez zuen oztoporik jarri. Herri-tarrek, besteak beste, aukera izan zuten Haurren Margo Lehiaketetan parte hartzeko, gurdiekin entzierro txikian korrika egiteko eta buruhandiekin jolasan ibiltzeko. Gazteentzako jolasak, sokatira txapelketa eta musika emanaldiak ere izan ziren.

Eguerdian Aldatsen egindako bertso-pilota saioak ere jendetza erakarri zuen. Beñat Gaztelumendi eta Eli Pagola bertsolariak girotutako partidaren txapela Urmenetak eta Urruzolak jantzi

zuten; 22-21 nagusitu zitzaizkien Goñiri eta Elizegiri.

Tradizioak nagusi

Debarren Egunean, berriz, tradizioak leku nabarmena izan zuten herriko identitateari lotutako ekitaldiekin: zezenak eta sokamuturra, ezpata-dantza eta aurrekua, eta erraldoien konpartsen desfilea eta alardea izan ziren. Jarduera horiek herriko ohiturei jarraipena emateaz gain, belaunaldiz belaunaldiko transmisioa bizirik dagoela frogatu dute.

TERXYPUR®

LAGUNAK
colchoneria textil hogar

1-Stretch ehuna / 2-Polester zuntza
3-Soja natural ez-transgenikoaren biskolestika
4-Polesterra / 5-Ehungintza TB
6-Soja natural ez-transgenikoaren biskolestika
7-Soja natural ez-transgenikoaren Terplus nukleoa
8-Platabanda / 9-Ehungintza TB / 10-Polesterra
/ 11-Polester zuntza / 12-3d ehun imitagarria

Moldagarria, transpiragarria, termoaldakorra, ergonomikoa, presioaren aurkakoa, alergiaren aurkakoa eta akaroen aurkakoa

San Roke kalea, 20 - ELGOIBAR - 943 744 457 / 685 756 978
www.textillagunak.com

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

www.facebook.com/adatsileak
@adatsileak

ENDANETA
muebles altzaririk

Sukalde eta etxe altzarien erakusketa izugarria 3000m²

Itziaroko gaina
Tel.: 943 19 91 00
Fax.: 943 19 91 91
ITZIAR-DEBA
endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com

Kolegiata zkoa / 2000123

Amaia Esnaola
ODONTOLOGIA

Fermin Calbeton 19- 3^oz. Eibar
943 20 72 17 | 650 42 28 08
amaia@esnaoladontologia.com

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

DEBA
Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza - 943 19 25 76

Euskal antzerkiaren erakusleihu izango da Deba

Gaur hasi eta maiatzaren 31ra bitartean ospatuko da 39. Antzerki Astea; umorea, inprobisazioa, sorkuntza propioak eta adin guztietako publikoari zuzendutako ekitaldiak uztartu ditu. Hamar antzezlan ez ezik, inprobisazio tailerra ere iragarri dute



Goaz Antzerki Taldeko kideak, aurtengo jaialdia iragartzeko kartelarekin. ALEX TURRILLAS

Izaro Aulestiarte

Abiatzear da "herriko guneak eszenaz eta emozioz" beteko dituen Debako Antzerki Astea, Goaz Antzerki Taldearen ekimenez. Jaialdiak hogeita hemezgarren aldia du aurten, eta hamar egun hartuko ditu, gaurtik hilaren 31ra bitartean. Askotariko egitaraua ondu dute antolatzaileek eta, azaldu dutenez, berritasunik ere izango da tartean. Jaialdiaren esentzia ez da aldatu, ordea. "Antzerki Astea, beste behin ere, antzerki amateurraren eta profesionalaren arteko zubia izango da, sortzaileei plaza eskaintzeko eta herritarrei antzerkia bizitzeko, partekatzeko eta harremanak sortzeko aukera emateko", nabarmendu dute.

Simon Berasaluze plazan izango da lehen emanaldia, gaur, 19:00etan, Gasteizko Zurrunka Teatro eta La Semilla Voladora konpainiek *Birakolore* kale ikuskizuna aurkeztuko baitute. Baina Agirre jauregiko Ispiluen gelan taularatuko dituzte gainontzeko antzezlan guztiak, bat izan ezik: maiatzaren 31n Itziariko Burugorri izango da Bilboko Gilkitxaro taldearen *Alperrak, tunanteak eta maleanteak* lana.

Bertoko ikasleak ere oholtzan

Donostiako Zurriola Antzerki Eskola, Elorrioko Arrapaladan, Aizarnako Herri Eskola eta Baionako Itzuli taldea ere izango dira egunotan herrian, baina tokiko sormen lanik ere ez da faltako jaialdian. Izan ere, De-

bako Gozatz egitasmoko antzerki ikastaroko ikasleak ere ariko dira oholtzan; hiru antzezlan egingo dituzte.

Berritasun nagusien artean, bestalde, inprobisazioak izango duen indarra azpimarratu du Goazek. Supituki taldearen eskutik, hain justu, *Supituki show* inprobisazio ikuskizuna eta bi eguneko inprobisazio tailerra ere izango dira aukeran.

Bi emanaldi izan ezik, gainontzekoak Agirre jauregiko Ispiluen gelan egingo dituzte

Egitaraua

OSTIRALA, 22

19:00 *Birakolore* kale antzerkia
Zurrunka Teatro & La Semilla Voladora antzerki konpainiak (Gasteiz). Simon Berasaluze plazan. Sarrera doan.

LARUNBATA, 23

19:00 *Bernarda klownaren etxea*
Zurriola Antzerki Eskola (Donostia). Ispiluen gelan. Sarrera: 6 euro.

IGANDEA, 24

12:30 *Abdukzioa, ke barbaridad!*
Arrapaladan taldea (Elorrio). Ispiluen gelan. Sarrera: 6 euro.

ASTEARTEA, 26

18:00 eta 19:00 *Romeo = Julieta / Herria lo*
Gozatz egitasmoko antzerki ikastaroko umeak (Deba). Ispiluen gelan. Sarrera doan.

ASTEAZKENA, 27

10:30 *Aizarnako Herri Eskolako ikasleen emanaldia*, Lehen Hezkuntzako haurrentzat. Ispiluen gelan. Sarrera doan.

OSTEGUNA, 28

18:00 eta 19:00 *Requiescat In Pace*
Gozatz egitasmoko antzerki ikastaroko umeak (Deba). Ispiluen gelan. Sarrera doan.

OSTIRALA, 29

19:00 *Supituki show*
Supituki Antzerki Inprobisatua (Bilbo). Ispiluen gelan. Sarrera: 6 euro.

LARUNBATA, 30 / IGANDEA, 31

10:00-13:00 Inprobisazio tailerra, Supituki taldearen eskutik. Ispiluen gelan. Tailerra doakoa izango da, baina izena alde aurretik eman behar da. Izena emateko edo informazio gehiagorako, idatzi goazantzerkitaldea@gmail.com helbidera edo sartu labur.eus/GoazAntzerkiAstea estekan.

LARUNBATA, 30

19:00 *Adriene bergson-johnson*
Itzuli konpainia (Baiona). Ispiluen gelan. Sarrera: 6 euro.

IGANDEA, 31

19:00 *Alperrak, tunanteak eta maleanteak*
Gilkitxaro taldea (Bilbo). Itziariko Burugorri. Sarrera doan. Itziariko Auzo Udalaren laguntzarekin antolatutako emanaldia.

SARREREN SALMENTA:

Antzerki emanaldiak hasi aurretik, leihatilan bertan salduko dituzte sarrerak; aurrez, berriz, Internet bidez eros daitezke, esteka honetan: labur.eus/GoazAntzerkiAstea.



Debako kaleak capoeiraz eta Brasilgo erritmoz zipriztinduko dira asteburuan

Capoeiraren Nazioarteko Topaketa antolatu du Senzala Euskadik

Nerea Bedialauneta Alkorta

Brasilgo kultura hurbiltzeko asmoz, Capoeiraren Nazioarteko Topaketa hartuko du aurten ere Debak, Senzala Euskadi taldearen ekimenez. Musika, folklore brasildarra eta capoeira izango dira datozen egunetako osagai nagusiak.

Egitaraua gaur, maiatzak 22, hasiko da. 19:30ean, Itxas Gain tabernan izango da lehen hitzordua: Debako Koda eta Arramazka taldeek girotuko dute iluntzea.

Bihar, dantza afrikarren ikastaroarekin ekingo diote egunari. 10:30ean, Garazi Pascual artista lasturtarrak Sabar dantza senegaldarrari buruzko ikastaroa emango du Ikigai zentroan. 12:00etan, helduentzako capoeira tailerra egingo dute Aldats pilotalekuan, Senzalako kide batek dinamizatuta; dantza, musika, arte martzialak eta akro-

baziak uztartuz diziplina ezagutzeko aukera izango dute bertaraten direnek.

Batukada-poteoa eta afaria

Egitarauak iluntzean izango du jarraipena. 19:00etan, batukada-poteoa abiatuko da zumarditik, Euskal Herriko Batukada Feminista Sarearen eskutik, eta kalejirak gaztetxeraino eramango ditu herritarrak. 21:00etan, herri-afaria egingo dute gaztetxean. Txartelak egunean bertan jarriko dituzte salgai, 10 euroan. Afalostea girotzeko, Bittencout Duo taldearen kontzertu brasildarra hasiko da, 22:30ean.

Etziko egitaraua ere capoeirarekin lotutako jarduerekin osatu dute. 11:30ean, haurrei zuzendutako saio irekia egingo dute Aldats pilotalekuan. Eta, amaitzeko, 14:00etan, erakustaldia egingo dute Foruen pla-

zan. Gonbidatu berezien artean izango dira Mestra Jo –emakumezko capoeira maistren artean nazioarteko erreferente nagusietako bat– eta Frantzian bizi den Mestra Nega –jatorri brasildarreko maisua–; eta, haiekin batera, Ingalaterratik, Frantziatik, Maltatik, Espainiatik eta Euskal Herriatik etorritako capoeira-zaleak ere ariko dira.

Kultur ekimena ekainaren 19an borobilduko dute, Euskal Herriko Batukada Feminista Sarearen eskutik antolatu duten batukada ikastaroarekin.

Izen-emateak

Ohartarazi dutenez, antolatu dituzten ikastaroetan parte hartzeko aurrez izena ematea gomendatzen da, 637 55 29 48 telefonoan –deituta edo Whatsapp mezu bat bidalita–.



laz nazioarteko topaketan parte hartu zuten hainbat lagun, Aldats pilotalekuan. IKIGAI



Garazi Pascual irakasle lasturtarra, dantza afrikarren saio bat gidatzen. IKIGAI ZENTROA

300 lagunek parte hartuko dute lehenbiziko Zuhatza Trail mendi martxan eta lasterketan

Egun gutxian bete dira euskararen aldeko ekimenean parte hartzeko izen-emateak

Izaro Aulestiarte

Pozik daude Zuhatza Trail mendi martxa eta lasterketa prestatzen diharduten boluntarioak. "Duela hiruzpalau aste ireki genituen ekainaren 27an egingo dugun ekimenerako izen-emateak, eta harrera bikaina izan dute biek: lasterketako dortsalak astebetean agortu ziren, eta martxari dagozkionak ere oso egun gutxira amaitu ziren", aipatu du antolakuntza taldeko Unai Itxasok. Bi probetarako 150 lagunetan zuten jarria partaideen muga, eta, kopuru horretara iritsita, esker oneko hitzak baino ez dituzte herritarrentzat.

Antolatzaileek emandako datuen arabera, lasterketan parte hartuko duten 150 lagunetatik, 110 bat bertokoak dira, debarrak eta itziartarrak; eta kopuru hori pixka bat altuagoa izango da, gainera, martxan –120tik gora-



Antolatzaileak eta herritarrak, izena emateko postuan, Foruen plazan. ZUHATZA TRAIL

koa-. Emakumezkoen parte-hartzea ere nabarmendu dute. "Lasterketan, partaideen %30 emakumezkoak izango dira, kopuru handiagoa izatea aurreikusitako bagenuen ere. Hala ere, oso pozik gaude martxaren datuekin,

bertan emakumeak %65 baino gehiago izango baitira", zehaztu du Itxasok. Halaber, aurreratu dute adin guztietako pertsonen parte hartuko dutela ekimenean.

Datu horiek guztiak mahai gainean jarrita, orain arteko

helburuak bete dituztela diote Zuhatza Euskaltzaleon Mugimenduko kideek. "Hasieratik genuen helburuetako bat bete dugu: ohiko mendi lasterketetan parte hartzeko ohiturarik ez duten herritarrak ere erakartzea, eta genero zein belaunaldi askotariko euskaltzaleak ekimen herriko berean elkartzea".

Bide batez, herriko saltokien eta tabernen laguntza ere txalotu dute. Itxasok azaldu duenez, "prestutasun handia erakutsi dute; bihotzez eskertzen diegu. Egin dituzten ekarpenei esker, egunean bertan sariak eta zozketak opari bereziekin osatzeko aukera izango dugu".

Prestaketak, "bide onetik"

Osterantzean, ekainaren 27ko hitzordua antolatzeko lanak "bide onetik" doaz. Azken orduko alaketarik ezean, Foruen plaza-tik abiatuko da Zuhatza Trail: 08:00etan hasiko da mendi martxa, eta 10:00etan lasterketa. Eta ibilbide bera osatu beharko dute bi probetako parte hartzaileek. 14 kilometro egingo dituzte guztira, 550 metroko desnibel positiboarekin: Deba, Artzabal, kanaleko bidea, Arbil, Itziarko

poligonoa, Santa Katalina, hondartza, Ifar kalea, Plaza Zaharra, Foruen plaza. Denborak markatuko du, beraz, martxaren eta lasterketaren arteko aldea.

Eta, behin ibilbidea zehaztuta, sustatzaileek gainontzeko xehetasunak lotzeko boluntarioen lantaldea indartzen jarraituko dute datozen asteotan; laguntzeko prest daudenean zuhatzakiro-la@gmail.com posta elektronikora idatz dezakete.

"Motibazioa, indargune"

Zuhatzak apirilean aurkeztu zuen ekimena, eta harrezkero herrian "bolo-bolo" dabilela nabarmendu dute. "Herritarrak entrenatzen hasiak dira, eta nabaria da jendea gogotsu dabilela. Horrek ilusio berezia egiten digu; azken finean, jendea motibatuta ikustea da ekimen honen indargune handienetako bat. Gainera, helburu nagusia euskararen erabilera esperientzia positibo eta erakargarri bihurtzea izanik, garrantzitsua irudituko zaigu lasterketa eta martxa amaitu ostean festari jarraitzea ematea", adierazi dute. Bada, egun osoko egitaraua onduko dutela aurreratu dute.

Egun osoko egitarauarekin ospatuko dute Lasturko Talo Eguna, igandean

Gipuzkoako V. Erroten Egunaren bueltako ekitaldien baitan iragarri dute festa

Izaro Aulestiarte ITZIAR

Talo Eguna ospatuko dute etzi, maiatzak 24, Lasturren, eta egun osorako egitaraua prestatu du, beste urte batez, Izarraitz Bizirik elkarteak, Lasturko Tabernaren eta Itziarko Auzo Udalarren laguntzarekin.

Antolatzaileek nabarmendu dutenez, Gipuzkoako V. Erroten Egunaren ospakizunen baitan egingo dute aurtengo jaia; maiatzaren 17a izendatu dute 2026ko Erroten Eguna, eta data horren bueltan makina bat ekintza egingo dituzte Gipuzkoa osoan, tokiko erroten garrantzia azpimarratu eta horien funtzionamendua erakusteko helburuarekin, batik bat.

Bada, Lastur ere batu da ospakizunera, iaz egin zuen bezalaxe, errotak ondare historiko, teknologiko, antropologiko eta etnografikoaren parte direla eta Gipuzkoako garapen sozial, ekonomiko eta industrialean garrantzi handia izan zutela aldarrikatu nahian. Eta, horiek horrela, igandean errotak mar txan egongo direla jakinarazi dute, nahi duten guztiek haien funtzionamendua zuzenean ikusteko aukera izan dezaten.



Lasturarrak, jai-giroan murgilduta, artxiboko irudi batean. IZARRAITZ BIZIRIK

Aldi berean, jakina denez, taloa bera izango da eguneko protagonista, Lasturko tabernaren atzealdean taloa nahi bezala, eta nahi beste dastatzeko aukera egongo baita aurrean ere.

Azoka, larrabehiak...

Osterantzean, eguneko ekitaldi-sorta goizeko hamaiketan hasiko da, Azpeitiko Antxieta Arkeologi Taldearen eskutik; historiaurreari buruzko azoka jarriko dute ikusgai, 15:00ak bitartean, eta haurrei zuzendu-

tako arkeologia tailerra ere emango dute.

Saka ganadutegikoek larrabehiaren erakustaldia egingo dute eguerdian; 12:15ean izango da. Eta, ordu bertsuan, musikak ere hartuko du Lasturko plaza, Elaia eta Jare trikitilariak ariko baitira jai-giroa alaitzen.

Bestalde, antolatzaileek gogorarazi dute Lasturko tabernan bazkaltzeko aukera izango dela; erreserba egin nahi izanez gero, 943 19 90 33 telefono-zenbakira deitu beharko da.

Irakurle taldeek 'Asterix galiarra' eta 'Bisita' liburuak izango dituzte aztergai

Hilaren 25ean egingo dituzte ikasturte honetako azken-aurreko saioak, Alaine Agirre idazleak gidatuta

I.A. ITZIAR

Itziarko Auzo Udalak ohartarazi du maiatzaren 25ean izango dituztela hilabete honetako saioak irakurle taldeek; asteartean egin behar bazituzten ere, eguna aurreratu egin dute, eta astelehenean batuko dira, Burugorri eraikineko bigarren solairuan.

Haurren eta gaztetxoaren taldeak 17:30ean hasiko du saioa, eta Rene Goscinnyren eta Albert Uderzoren *Asterix galiarra* aztertuko du oraingoan. Helduen taldean, oster, Mikel Pagadizabal Amiano *Pagadi*-ren *Bisita* (Elkar) eleberriaz arituko dira, 19:00etan hasita. Zientzia fikziozko nobela da *Bisita*, aurkezle, aktore eta idazle billabonatarrek "umore ganberroz" idatzitakoa. Satira politiko bat da funtsean; egileak estralurtarrak baliatu ditu euskal gizarteari kritika soziala egiteko.

Alaine Agirrek gidatuko ditu hitzorduak eta saioak doakoak izango dira, baina antolatzaileek gogorarazi dute komenigarria dela izena aurrez ematea. Interea dutenek Itziarko harrera-bulegoan eman dezakete izena, 943 19 92 55 telefono-zenbakira dei-



Mikel Pagadizabal idazlea. A.A.A. / ATARIA

tuta edo apuntatu@itziar.eus helbidera mezu bat bidalita.

Azken saioak, ekainean

Urtarrilean jarri zituzten mar txan irakurle taldeak Itziarren, eta ekainean bukatuko dute ikasturtea. Azken saioak hilaren 9rako iragarri dituzte, hain justu. 7 eta 12 urte arteko literaturazaleek Iñigo Astiz poetak eta Maite Mutuberria irudigileak ondutako *Joemak eta polasak* izango dute aztergai; helduen saioan, aldiz, Josu Goikoetxearen *Lakioa* liburuaz ariko dira.

Antolatzaileak "gustura" daude Endoia auzoko Asentzio jaiek izan duten harrera ikusita



GAZTENDIOIA



GAZTENDIOIA

Lau egunez festa-giroan murgilduta egon ondoren, maiatzaren 17an amaitu ziren Asentzio jaiek Endoian, eta antolatzaileak pozik daude jendeak emandako erantzunarekin. "Oso jai parte-hartzaileak izan dira. Gustura geratu gara, eta ingurukoek

gauza bera adierazi digute", esan dute. Musikak, mus txapelketak, otordu bereziek eta herri-kirolek osatu dute, nagusiki, Endoia Gazte Elkarteak, Gaztendoia Endoia Auzo Elkarteak, Itziarko Auzo Udalak eta Zestoako Udalak ondutako egitaraua.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

ESKAINZA

Elgoibar San Lazaro egoitzarako garbitzaileak behar dira, ordezkapenak egiteko. Interesatuak curriculumak utzi dezakete egoitzako harreran edo e-postaz bidali: dir.elgoibar@biharko.org

Deba-Itziar BARRENAK banatzailea behar du Deban eta Itziarren BARRENA astekaria banatzeko. Interesatuok idatzi banaketa@barrena.eus-era.

ESKAERAK

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago. Pintura eta konponketa lanetan ere esperientzia daukat. Elgoibartik kanpora bidaiatzeko aukera. 603 72 70 67

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. Titulua daukat. 631 02 01 69

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. 603 17 39 20

Elgoibar. Udaldian umeak zainduko nituzke, arratsaldeetan. Atxutxiamaiak hezitzaile ibilitako naiz. 688 63 28 91

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago: etxeko langile, asteburuetan, orduka... Erabateko malgutasuna. 602 49 05 95

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago: asteburuetan, orduka... Erabateko malgutasuna. 624 34 34 51

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN HARTU

Elgoibar. Etxea hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren. Epe luzerako. 602 30 40 08

KINTOAK

Elgoibar. 1956ko kintoen bazkaria ekainaren 13an. Kalegoen plazan batuko dira, 12:30ean, argazkia ateratzeko. Luntxa, Ibai Ondon, eta ondoren, bazkaria Txarridunan. Interesatuak 75 euro ordaindu behar dituzte Laboral Kutxako kontu honetan, izena eta bi abizen zehaztuta: ES15 3035 0007 20 0071147446. Harremanetarako telefonoak: 696 45 50 24 (Antonio) / 630 28 63 63 (Begoña)

Iragarkia jartzeko

943 744 112


sailkatuak@barrena.euswww.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkeneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- BARRENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu.

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- "Barrena.eus"-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurrak helbidean sartu.
- Mezua bidali herrietako erredakzioetara edota Whatsappez 688 65 56 58 zenbakira edo e-postaz zorionagurrak@barrena.eus. Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta testua.
- Etorri edo deitu gure betiko egoitzetako batera.

ZORION AGURRAK



SORALUZE

Beñat

Zorionak, Beñat! Ondo ospatu zure eguna. Pabxo handi bat, etxekoan partez.



SORALUZE

June

Zorionak, June! Ondo pasa zure egunean.



ERMUA

Peru


Zorionak, maitea. Etxekoan partez, besarkada handi bat. Segi horrela, alai-alai. Maite zaitugu.



ELGOIBAR

Martina

Zorionak, Martina, maiatzaren 20an 8 urte egin zenituelako. Famili guztiaren partez, muxu asko!



ELGOIBAR

Arrate eta Nuria

Zorionak, Arrate eta Nuria, maiatzaren 25ean eta 30ean zuen urtebetetze-egunak izango direlako. Familiakoan, lagunetan eta bereziki, aitaoren eta Alexen partez. Muxu bat.



MENDARO

Maddi

Jada 9 urte, Maddi! Zein handia egiten ari zaren! Segi horrela jator-jator. Izugarri maite zaitugu. Etxekoak.



SORALUZE

Luar

Gure bizipoza zara, laztana! Segi irri txikiarekin bizitzaz gozatzetan! Asko maite zaitugu! Etxekoak.



SORALUZE

1971koen kintada

Maiatzaren 16an kinto-bazkaria egin genuen. Gure leloak: *Carpe diem! El tempus fugit!*

DEBA SURF IPAR

Surf

EKAINAK 22
IRAILAK 6

UDAKO ESKOLA IPARREN

SURF IKASTAROAK
SURF ETA SURF SKATEKO KANPUSAK
PADDLE SURF IKASTAROAK
MASTER SURFA

IZEN EMATEAK
627 325 100

LABORAL
IPAR

EIBAR IPAR INDOOR

Skate

EKAINAK 22
IRAILAK 6

UDAKO ESKOLA IPARREN

SKATE 6 ROLLER
KANPUSA ETA INTENTSIBOAK
IPARNETA
TAILERRAK ETA BESTE JARDUERA ASKO

LABORAL KUTXAko BEZARREZ
%50

IZEN EMATEAK
679 51 35 92

IPAR
LABORAL
kutxa

ELGOIBAR



Euren oroimenez IV. urteurreneko meza izango da, domekan, maiatzaren 24an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren parrokiari. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

*Beti gure bihotzean izango zaituztegu.
Bakea zuekin izan dezazuela.*

Maitasunez, etxeokak



IV. urteurrena

**Angel Albizu
Astigarraga**

2022ko maiatzaren 24an hil zen,
82 urte zituela.



IV. urteurrena

**Arrate Elizburu
Arriola**

2022ko maiatzaren 29an hil zen,
76 urte zituela.

**Barrena eskelak:
zabalkunde handiena Debabarrean**

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - barrena@barrena.eus

Bulegoak:
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / barrena@barrena.eus

OSTIRALA 22

- **DEBA Erakusketa: '2 zaletasun' (Juan Ignacio Aizpurua)** Erakusketa zabalik egongo da ekainaren 4ra arte. Eguneko Zentroan, 10:00etatik aurrera.
- **MALLABIA LGBTIQA+ liburu interesgunea** Ekainaren 15era arte. Udal liburutegian, 16:00etatik 19:00etara.
- **ITZIAR 'Isortzen (Itziar sortzen) eguna'** Ekintzak egingo dituzte haurrentzat, hala nola talentu ikuskizuna, toka txapelketa, frontenis finala eta babaz betetako potoaren jolasa. Zabalsoro frontoian, 16:30ean.
- **SORALUZE Odol emaileen hitzordua** Itxaropena Jubilatuta Elkartearen, 16:30etik 20:30era.
- **ERMUA Erakusketa: 'Gu ere bagara!'** Ines Bermejo artistak eta Julen Nafarrate kazetariak bultzatutako sormen-lana da. Helburua da Getxoko LGTBQ+ nagusien kontaktu gabeko istorioak jasotzea eta, aldi berean, ezagutu zer-nolakoak diren euren errealitatea eta bizipenak. Antolatzailea: Lagun Artea. Emakumeen Topalekuan,

18:00etan. Ekainaren 30era arte.

- **MUTRIKU Europako Geoparkeen Astea** Maiatzaren 22an hasi eta 30era bitartean, ekimen ugari izango dira Deban, Mutriku eta Zumaian. Ekintzak doakoak izango dira, baina batzuetan aurrez eman beharko da izena. Mutriku izango da irekiera-ekitaldia, igerileku ondoko zabalgunean, 18:00etan. Informazioa: geoparkea.eus.
- **ELGOIBAR Egur-arte tailerrekoen erakusketa** Ikasle umeen lanak jarriko dituzte ikusgai, maiatzaren 30era arte. Kultur Etxean, 18:30etik 20:30era.
- **SORALUZE Erakusketa: 'Pintura eskolako ikasleen lanak'** Erakusketa aretoan, 18:30ean. Maiatzaren 23ra arte.
- **MENDARO Onintza Enbeitaren 'Bizitza baten txatalak' liburuaren aurkezpena** Udaletxean, 19:00etan.
- **DEBA Antzerkia: 'Birakolore'** 39. Antzerki Astearen baitan antolatutako ikuskizuna. Sarrera doan. Simon Berasaluze plazan, 19:00etan.

ELGOIBAR Azken zapatuko feria

LARUNBATA 23: Debemenek eta Udalak antolatuta. 09:00etatik 14:00etara, baserriko eta Artalde Artisau Taldearen produktuen salmenta Aita Agirre plazan. 11:00etan hasita, Altzolako auzo elkarteak pintxoak prestatuko ditu Aita Agirre plazan Elgoibarko baserrietako eta harategietako produktuekin. Eguerdian, umeentzako talo tailerra egingo dute. Eguerditik arratsaldera, ganadu erakusketa, Aita Agirre plazan.



MALLABIA III. 7 Pago mendi lasterketa

LARUNBATA 23: Mallabiko 7 Pago elkarteak antolatuta. Ibilbidearen hasiera eta amaiera Mallabiko herriko plazan izango dira, eta ibilbide nagusia Oiz puntatik igaroko da. 09:30ean: lasterketa luzea (25 km), 1.400 metroko desnibel positiboa. 10:00etan: lasterketa motza (16 km), 750 metroko desnibela. Zazpi Pago mendi lasterketaren barruan ere egun osoko egitaraua antolatu dute. 10:30etik 13:30era: haur parkea parkean —euria bada, frontoian—. 13:30ean: plazan lasterketen sari-banaketa. 13:30etik 15:30era: Elektroxufla elektrotxaranga, plazatik hasita. 14:00etan: plazan oilasko-pintxoak eta sagardoa. 16:00etan: umeen lasterketa. 17:30etik 20:00etara: probalekuan garagardo-dastaketa. 19:00etan: Kontzejuzarreen Imanol Epelderren ikuskizuna, *Zerbait sartu zait begian*.

- **SORALUZE Kontzertua: Musika Eskolako konboak** Soralezeko Musika Eskolako ikasleen kontzertua; baxu, gitarra eta perkusioko ikasleak taldean elkartuta. Gaztetxean, 19:00etan.
- **DEBA Kontzertua: Koda eta Arramazka** Itxas Gain tabernan, 19:30ean.
- **DEBA 'Tongola' umorezko ikuskizuna** Ugaitz Alegria eta

Ainhoa Etxebarria aktore ondarrutarren eskutik. KulturEkin programaren baitan antolatutako emanaldia. Sarrera: 5 euro (labur.eus/tongolakulturekin). Kultur Elkartearen, 20:00etan.
- **MENDARO Roberto Niewa saxofoi jotzailearen kontzertua** Mesa 7 elkarteak antolatuta. San Agustín kulturgunean, 21:30ean.

LARUNBATA 23

- **DEBA Gipuzkoako Emakumezkoen Itzulia. Bigarren etapa: Deba-Deba** Kadete, junior, 23 urtez azpiko eta elite kategorietako emakumeek hartuko dute parte proban. Foruen Plazan, 09:00etan.
- **ERMUA Body power kirol jarduera** Ermua Kirolak antolatutako doako kirol jarduera. M.A.B. Kiroldagian, 09:30etik 10:30etara.
- **ELGOIBAR Isiitasunaren eskola** Jose Cruz Igartuak emango du. Kultur Etxean, 10:00etan.
- **ERMUA 'La voz de la poesía' olerki tailerra**

Pertsona helduentzako tailerra. Udal Liburutegian, 11:00etan.

- **DEBA Capoeiraren Nazioarteko Topaketa** 10:30ean, dantza afrikarra Ikigai zentroan. 12:00etan, capoeira saio irekia frontoian. 19:00etan, batukada, EH Batukada feministaren eskutik. 21:00etan, herri-afaria gaztetxean —tiketak bertan salgai, 10 euroan—. 22:30ean, kontzertu brasildarra gaztetxean, Bittencourt Duoren eskutik.
- **MENDARO Txiki Txoko jolasa (izena emandakoentzat)** Trinitaten, 11:30ean.
- **ERMUA Parkour tailerra** Udal Gazteria Zerbitzuak antolatuta, 2009tik 2013ra jaiotako gazteentzat. Liburutegiko sarreran, 17:00etan.
- **DEBA Antzerkia: 'Bernarda clownaren etxea'** 39. Antzerki Astearen baitan antolatutako ikuskizuna. Sarrera: 6 euro. Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 19:00etan.

IGANDEA 24

- **SORALUZE 32. Kaleko Margo Lehiaketa** 09:00etan, helduen lehiaketaren hasiera. 10:30ean, haurren eta gaztetxoaren lehiaketaren hasiera. 14:00-18:00etara, margolanen erakusketa eta herritarren bozketa. 18:00etan, sari-banaketa.
- **ELGOIBAR Dultzaineroen diana** Kalegoen plazan hasita, kalean zehar, 10:00etatik aurrera.
- **SORALUZE Ahalduntze eskola: 'Emakumeen mendi irteera: San Andres-Txurruka'** Soralezeko Emakumeon* Ahalduntze Eskolako udaberri eta udako egitarauaren baitan antolatutako ekintza. Plaza Barritik hasita, 10:00etan.
- **DEBA Capoeiraren Nazioarteko Topaketa** 11:30ean, capoeira saio irekia haurrentzat, frontoian. 14:00etan, capoeira erakustaldia, Foruen Plazan.
- **ELGOIBAR Udal Musika Bandaren kontzertua** 1.

A colonial collage (James Hosay). 2. *Udal dantzak* (Adam Gorb). 3. *The swam on the hill* (Jan Van der Roost). 4. *Gran marcha de Tannhauser* (Richard Wagner). 5. *Fiesta en Sevilla* (Ricardo Dorado). Herriko Antzokian, 12:30ean.

- **DEBA Antzerkia: 'Abdukzioa, ke barbaridad!'** 39. Antzerki Astearen baitan antolatutako ikuskizuna. Sarrera: 6 euro. Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 12:30ean.
- **DEBA Bisita gidatua: 'Debatik Zumaiara itsasontziz'** Iraupena: ordubete. Bisitari kopuru mugatua: 39 lagun. Beharrezkoak: jantzi egokiak, eguraldiaren arabera. Prezioa: 16 euro —12 urtetik beherakoentzat: 10 euro—. Irteera-puntua: Anes Arrinda pasealekua —pantalana—, 12:30ean. Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko: geoparkea.eus.
- **SORALUZE Zirku ikuskizuna: 'Marietak Zirkus'** Kale Margoketa Egunaren baitan, Udaleko Kultura batzordeak antolatutako kaleko zirku ikuskizuna. Plaza Zaharrean, 12:30ean.
- **DEBA Kuadrillen bilera** Gaztetxean, 18:00etan.

ASTELEHENA 25

- **ERMUA Adinekoen artean erorikoak prebenitzeko tailer teorikoa** Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, Osakidetza osasun zentroak eta Ermuko Udaleko Gizarte eta Kirol zerbitzuek antolatuta. Doakoa. Lobiano Kulturgunean, 10:30etik 12:30era.
- **ITZIAR Itziarko irakurketa taldea (haurrak eta gazteak): 'Asterix galiarra'** Alaine Agirre idazleak gidatuko du haurrei eta gazteei zuzendutako saioa. Burugorri eraikineko bigarren solairuan, 17:30ean.
- **ELGOIBAR Hitzaldia: 'Neke emozionala'** Loredi Salegik gidatuko du. Lila emakumeen etxean, 18:00etan.

ITZIAR Lasturko Talo Eguna

IGANDEA 24: Izarraitz Bizirik elkarteak, Itziar Auzo Udalak eta Lasturko Tabernak antolatuta. 11:00etatik 15:00etara, Antxeta Arkeologi Taldearen eskutik, historiaurreari buruzko azoka eta haurrei zuzendutako arkeologia tailerra. 12:15ean, Saka ganadutegiko larrabehien erakustaldia. Eguerditik aurrera, Elaia eta Jare trikitalariek alaituko dute jai-giroa. Egun osoan taloak jateko aukera.



- **SORALUZE Literatur solasaldia: 'Pleibak', Miren Amuriza idazlearekin** Liburutegiko Euskarazko Irakurle Klubak antolatutako ekimena. Udal liburutegian, 19:00etan.
- **ITZIAR Itziar irakurketa taldea (helduak): 'Bisita'** Mikel Pagadiren liburua landuko da saioan. Alaine Agirre idazleak gidatuko du. Burugorri eraikineko bigarren solairuan, 19:00etan.

ASTEARTEA 26

- **MALLABIA Nortasun agiria eta pasaportea izapidetzeko aukera** Polizia Nazionalaren unitate mugikorrek nortasun agiria egiteko, pasaportea berritzeko eta nortasun agiriaren ziurtagiri elektronikoa eguneratzeko aukera eskainiko ditu. Aurrez hitzordua eskatu behar da: udal bulegoetan edo 943 17 14 61 telefonora deituta. Udal frontoian, 09:00etatik 13:30era. Maiatzaren 26an eta 27an.
- **ERMUA Adinekoen artean ererikoak prebenitzeko tailer praktikoa** Eusko Jaurilaritzako Osasun Sailak, Osakidetzako osasun zentroak eta Ermuko Udaleko Gizarte eta Kirol zerbitzuek antolatuta. Doakoa. M.A.B. Kiroldegian, 10:30etik 12:30era.
- **DEBA Adimen artifizialari buruzko tailerra – oinarritzko maila–** Arbil

- Elkarte Sozialaren ekimenez. Mari Piris Elkarmediako kideak gidatuko ditu saioak. Arbil elkarteak, 15:00etan.
- **SORALUZE Panpinen pijama festa** Udal Liburutegiak 2 tertetik aurrerako haurrentzat antolatutako ekintza. Udal Liburutegian, 16:30etan.
- **ELGOIBAR 'Desira' sexu-aholkularitza zerbitzua** Banakako saioak, bikoteko saioak edo talde txikian. Doan. Lila emakumeen etxean, 16:00etan.
- **ELGOIBAR 'Maiatzeko manifestua: gure aldarrikapena'** Merlin Medinak gidatuko du. Lila emakumeen etxean, 17:00etan.
- **SORALUZE Emanaldia: 'Zirkua: ikasturte amaiera'** Zirkopilla zirku eskolaren eta Soralezko Hezkuntza Proiektuaren artean antolatutako ekintza. Herri Antzokian, 18:00etan.
- **DEBA Antzerkiak: 'Romeo = Julieta' eta 'Herria'** 39. Antzerki Astearen baitan antolatutako ikuskizunak. Sarrera doan. Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 18:00etan eta 19:00etan.

ASTEAZKENA 27

- **SORALUZE Tailerra: 'Online katalogoa'** JendartEkin proiektuaren eta udal liburutegiaren arteko elkarlana oinarri antolatutako tailerra. Udal liburutegian, 10:00etan.

- **DEBA Antzerkia, Aizarnako Herri Eskolako ikasleen eskutik** 39. Antzerki Astearen baitan antolatutako ikuskizuna. Lehen Hezkuntzako haurrentzat. Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 10:30etan.
- **SORALUZE Hezkuntza Foroa** Soralezko Hezkuntza Komunitateak eta OinHerri Herri Hezitzaileen sareak elkarlanean osatua. Herri Antzokian, 17:30etan.
- **MENDARO Frontenis Txapelketako partidua** Gazte Asanbladak antolatuta, frontoian. 18:00etan hasita.
- **MENDARO Musika eskolako trikiti, pandero eta txistuko ikasleen kontzertua** San Agustin aretoan, 19:00etan.

OSTEGUNA 28

- **MALLABIA Zinegoak hedapena** Udalak eta Berdintasun Kontseiluak antolatuta. Kontzejuzarreen, 12:30etan.
- **DEBA Adimen artifizialari buruzko tailerra –oinarritzko maila–** Arbil Elkarte Sozialaren ekimenez. Mari Piris Elkarmediako kideak gidatuko ditu saioak. Arbil elkarteak, 15:00etan.
- **DEBA Antzerkia: 'Requiescat In Pace'** 39. Antzerki Astearen baitan antolatutako ikuskizuna. Sarrera doan. Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 18:00etan eta 19:00etan.

- **MENDARO Frontenis Txapelketako partidua** Gazte Asanbladak antolatuta, frontoian. 18:00etan hasita.
- **ELGOIBAR Pintxoconcert** Musika eskolak antolatuta, herriko hainbat gunetan kontzertuak emango dituzte musika eskolako musikariek. Lekuederren, 18:30ean.

OSTIRALA 29

- **SORALUZE Odol emaileen hitzordua** Itxaropena Jubilatuta Elkarteak, 16:30etik 17:30era.
- **ELGOIBAR Pilota Eguna** Lagunak Pilota Eskolak antolatuta. Kalegoen plazan, 17:30ean.
- **SORALUZE Ikasturte amaierako dantza erakustaldia** Herri Antzokian, 18:00etan.
- **DEBA 'Oreakariak' solasaldia.** Europako Geoparkean Astearen baitan, Eduardo Ogandok –EHUko fisikaria– eta Ibon Oregik –surf egokituko munduko txapeldunordea– surfaren eta orekaren arteko harremanaz hitz egingo dute. Hondartzako pasealekuan, 19:00etan.
- **DEBA Antzerkia: 'Supituki show'** Antzerki Astearen baitan antolatutako ikuskizuna. Sarrera: 6 euro. Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 19:00etan.
- **DEBA Euskal presoen eta iheslarien giza eskubideen aldeko mobilizazioa** Foruen Plazan, 19:30ean.
- **ERMUA Antzerkia: 'El Encargo'** Foruen Plazan, 19:30ean. Prezioa: 10 euro. Ermua Antzokian, 20:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- 22 EGUENA Yudego / Lasuen-Elezgaray / I. Ugarte
 - 23 BARIKUA Oruesagasti / *Barrenetxea / Lasuen-Elezgaray / A.M. Baz / *I. Lecumberri
 - 24 ZAPATUA Oruesagasti / Lasuen-Elezgaray / I. Lecumberri
 - 25 DOMEKA Barrenetxea / A. Zalduegi / M. Alves
 - 26 ASTELEHENA Soto / A. Zalduegi / I. Lecumberri
 - 27 MARTITZENA Garitaonandia / A. Zalduegi / A. Alcalá
 - 28 EGUAZTENA Arriola / A. Zalduegi / I. Ugarte
 - 29 EGUENA Fernandez / H. Burgoa / A.M. Baz
- *09:00-14:00 / *09:00-13:30

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:

- Deba:** 09:00-13:45 / 16:30-19:30
- Elgoibar-Mendaro-Soraluze:** 09:00-13:00 / 16:00-20:00
- Ermua-Mallabia:** 09:00-13:30 / 16:30-20:00
- Mutriku:** 09:00-13:30 / 16:45-20:00
- Itziar botikina:** 09:00-12:30
- GUARDIA ORDUTEGIAK**
- Egunez:** 09:00-22:00
- Gauetz:** 22:00-09:00
- Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 20 61 00)
- Larunbatak:**
- Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
- Deba-Mutriku: 09:30-13:00
- Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
- Igandeak eta jaiegunak:** Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK

- DEBA A. ZALDUEGI:** Lersundi, 20 - 669 26 22 01
- DEBA H. BURGOA:** Astillero, 2 - 667 33 88 90
- ELGOIBAR ARRIOLA:** Santa Ana, 1 - 943 74 01 40
- ELGOIBAR BARRENETXEA:** Errosario, 26 - 943 74 12 77
- ELGOIBAR GARITAONANDIA:** Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
- ELGOIBAR YUDEGO:** San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
- ERMUA A.M. BAZ:** Zearkale 2 - 943 03 17 03
- ERMUA M. ALVES:** Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
- ERMUA A. ALCALA:** Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
- ERMUA I. LECUMBERRI:** Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
- ERMUA M.I. UGARTE:** Goienkale, 11 - 943 17 05 26
- MALLABIA E. ARRONATEGI:** Mallazpi z/g - 943 17 24 14
- MENDARO FERNANDEZ:** Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
- MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY:** Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
- MUTRIKU L. APRAIZ:** Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
- SORALUZE SOTO:** Rekalde, 1 - 943 75 16 38
- SORALUZE ORUESAGASTI:** Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

ZINEMA

ELGOIBAR

- HERRIKO ANTZOKIA
- 'Kraken, el libro negro de las horas'**
- Ostirala, 22: 19:00
- Larunbata, 23: 19:00, 22:15
- Igandea, 24: 19:00
- Astelehena, 25: 21:00
- 'Michael'**
- Ostirala, 29: 19:00

ERMUA

- ERMUA ANTZOKIA
- 'Después de Kim'**
- Larunbata, 23: 19:30
- Astelehena, 25: 20:30
- 'El diablo se viste de Prada 2'**
- Larunbata, 23: 22:00
- Igandea, 24: 19:30
- 'Los lejanos'**
- Igandea, 24: 17:00
- 'Toso lo que fuimos'** (Zinekubak-Jatorrizko bertsoian)
- Osteguna, 28: 20:30

DEBA

- KULTUR ELKARTEA
- 'Nosferatu'**
- Igandea, 24: 19:00

EIBAR

- COLISEO ANTZOKIA
- 'Hugo 24'**
- Larunbata, 23: 17:00, 19:45, 22:30.
- Igandea, 24: 17:00, 20:00.
- Astelehena, 25: 20:30.
- 'Iron Maiden. Burning Ambition'**
- Larunbata, 23: 22:30.
- Igandea, 24: 20:00.
- Astelehena, 25: 20:30.
- 'La chica del coro'**
- Larunbata, 23: 19:45, 22:30.
- Igandea, 24: 20:00.
- 'Maracuda'** (Euskeraz)
- Larunbata, 23: 17:00.
- Igandea, 24: 17:00.
- 'Las ovejas detectives'**
- Larunbata, 23: 17:00.
- Igandea, 24: 17:00.

AZKEN BERBA

Badator gaztetxeen loraldia



NAIA AIZPURUA
ITAIAKO KIDEA

Iratzargailuak jo du, goizeko zazpiak. Mugikorra hartu, Instagram ireki, eta hor berriz ere: *desalojo bat*. Beste gaztetxe bat kanpora. Kargak, identifikazioak, oihuak. Eta gosaria prestatu aurretik jada haserre. Azkenaldian horrela hasten dira egun gehiegi.

"Badakigu zer diren gaztetxeak: babeslekuak eta antolatze espazioak"

Gero lanera. Edo klasera. Edo biak batera, gazte askok bezala. Aste osoa korrika, lanpetuta. Askok alokairu ezinei eusten eta aisialdia ere ordaindu behar den mundu honetan bizirauten. Eta bitartean, beste gaztetxe baten desalojoa, eta amorrua, amorrua badakidalako gaztetxe bat ez dela espazio soil bat. Badakidalako aste osoa itota pasa ondoren, gazte askok bertan aurkitzen dugula arnagunea. Beste modu batean bizitzeko aukera bat, behintzat.

Horregatik nazkatzen gaituzte hainbeste gaztetxeak kriminalizatzen dituzten diskurtsoek. Kanpotik erraza delako epaitzea, baina barrutik bizi ditugunok badakigu zer diren benetan: babeslekuak eta antolatze espazioak.

Izan ere, bide horretan datoz maiatzaren 29an eta 30ean Elorrioren egingo diren Euskal Herriko gaztetxe eta gazte asanbladen topaketak, iluntasunari argia emateko. Gazteok argi daukagu: herrietik eta eskualdetik elkar ikusi, saretu eta norabide berean goazela gogorarazi.

Badatoz, bagoaz!

BUKATZEKO

'Maltzaga' diseinuarekin, Eibartik Madrilera

Hiru orduan sortutako 'Maltzaga' soinekoak Alfa Style lehiaketako finalerdietarako txartela eman die Idoia Urubarruri eta Vanesa Mateosi

Ainara Argoitia MENDARO
Alfa Style jostintza lehiaketako finalerdietarako sailkatu dira Idoia Urubarruri eta Vanesa Mateos mendaroartutako elgoibartarra, *Maltzaga* izeneko diseinuarekin. Estatu mailako lehiaketa da Alfa Style, Alfa josteko makinaren enpresak antolatutakoa, eta joan den maiatzaren 10ean Eibarko Errebal plazan egin zuten kanporaketetako bat, *Eibar moda sortzen* izenburupean. Bederatzi bikotek hartu zuten parte lehiaketan, eta, 10:00etan hasita, hiru ordu eman zieten guztiei, nahi zuten jantzia sortzeko. Mateosek aitortu du "itsuitsuan" eman zuela izena lehiaketarako, eta esan du asko uste gabekoa izan dutela saria. Finalerdietarako txartelaz gain, 200 euroko saria ere jaso dute.

"Instagramen ikusi nuen iragarria. Niri beti gustatu izan zait jostea, eta informazio eske deitu nuen. Iruditu zitzaidan gehiegixko izango zela niretzat, baina, eta baztertu egin nuen ideia. Hala ere, handik egun batzuetara, antolatzaileek eurek deitu zidaten parte hartzera animatzeko. Bikoteka parte hartu behar zen, eta aipatu zidaten Eibarren bazela beste emakume bat interesa agertu zuena, baina lagunik gabe zegoena parte hartzeko. Eta animatu egin nintzen", azaldu du. Biak ala biak trebeak dira eskulanetan, eta beren marka ere badute Interneten

–*Idoie artisautza* Urubarruk eta *Lukenka* Mateosek–, baina ez zuten elkar ezagutzen. Zer den, baina, egitekoa gustukoa izatea! Telefonoz bi-hiru hitz egin, eta kafe bat hartzeko elkartu ziren. Ez zuten denbora askoz gehiago behar izan diseinuaren zirriborroa egiteko, horixe eskatzen baitzieten antolatzaileek aurrez. "Idoia bazuena patroia bat egin, eta huraxe erabili genuen oinarritzat, baina nik ere neure senti nezan, eman genizkion ukitu batzuk. Eta halaxe sortu genuen *Maltzaga*". Liho itxurako ehun hori bat erabili zuten soinekoa sortzeko: "Lanera joateko, zeremonia batera joateko nahiz hondartzara joateko moduko soinekoa da. Sandalia batzuk jantzi, eta behar duzunerako, prest".

Denboran sartzea beste baldintzarik ez zieten jarri antolatzaileek, eta gustura aritu zirela aitortu du Mateosek. Halaxe topatu zituen lanean Sonia Archeli lagunak maiatzaren 10eko hartan –bizilaguna du Mateosek Archeli, eta zingotzi da hura Eibarko Udalean–. "Etorri zen eta esan zigun ikaragarri gustatzen zitzaizola soinekoa, eta desfile egunean ea jantziko zuten galdetu genion. Kabitzen baldin bazen gustura egingo zuela erantzun zigun. Eta egia aitortuko dizut, ez genuen soinekoa harentzat sortu, baina neurri-neurrira eginda moduan gelditzen zitzaion, eskularru bat jabearen eskura nola". Harro



Idoia Urubarru, Sonia Archeli eta Vanesa Mateos, Eibarren. LAGATAKOA

erakutsi zuen soinekoa Archelik joan den ostiralean Errebal plazan jendaurrean egin zuten desfile ikusian. Eta ondo egindako lanak saria eman zien lagunei. Hiru sari banatu zituzten antolatzaileek egun hartan: *Maltzaga*-k jaso zuen lehen saria; eta *Eibarko Mamia* diseinuak bigarrena; patroigintzaren eta jostintzaren

saria, berriz, *Legado Alfa* izeneko diseinuarentzat izan zen.

Gauza handirik ez diete argitu antolatzaileek orain hurrengo ematekoak dituzten pausoez, baina litekeena da Madrilen izatea lehiaketako finalerdiak, Archeliren arabera. "Apu bat beldurtuta ere banago oraintxe honek hartu duen tamainarekin. Ez dakit finalerdietan bakarka aritu beharko dugun, edo bikoteka, eta bikoteka parte hartzekotan bikotekak eginda emango dizkiguten ere ez dakigu jakitez. Noiz izango den ere ez digute zehaztu. Baina behin honetaz gero, bete beharko dugu hori ere, eta ilusioz joango gara".

Hiru orduan josi zuten saritutako soinekoa Idoia Urubarruk eta Vanesa Mateosek



egunean behin Batu zaituz Tokikom Ligako Barrena taldera eta parte hartu asteroko zozketan!

1. asteko saritua: Mikel Madarieta (Ermua)
Saria: 'Tongola' umorezko ikuskizunerako bi sarrera